uztarria
Azpeitiko herri aldizkaria | 2018ko maiatza | 205. zenbakia

TXEPELKERIARIK GABE

Badu eta ematen du zer esana Iñaki Segurola filologoak. Ohikoa duen estilo zuzenarekin hitz egin du, luze 20

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak
Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97

MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea
Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
www.sukaldeak.eus

Zatoz gure erakusketa berria ikustera!

bai

Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00

uztarria.eus





Eskerrik asko emaitzengatik!

Bazkide datuak hobetzen lagunduko?

Urtean 30euro

Bazkideen abantailak:

- Uztarria proiektuaren parte izan
- Bestelako produktuak etxean jaso
- Zozketetan eta lehiaketetan parte hartzeko aukera

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 205.a (2018ko maiatza)
Urtea. XIX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 / uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. J. Frantzesena
Webgunea. www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2018KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?

iritzia

Inkesta. Animaliarik ba al duzu edo izan al duzu etxean? 13

mamia

Erreportajea. Marea Urdina egitasmoaren sustatzaileekin hizketan 04

Klik! Panpinak eskuz egiten ditu Sara Gorostiagak 16

Pentsiodunak. Pentsio publiko eta duinen alde borrokan jarraitzeko asmoa dute herritarrek 24

jakiteko

Atzera begira. Mendietako ikurrak izan dituzte hizpide hainbat lagunek 34

Ba al dakizu herrian bildutako hondakinen %71 gaika sailkatuta jaso zutela joan zen martxoan? ✎ **Uztarria**

Izan uztarriaren bazkide t 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu**, **CD 1**, **DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. *Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta*

Tantaz tanta, olatua

Autismoa gizarteratzeko, Marea Urdina egitasmoa sortu dute lau lagunek. Gipuzkoako kostaldea igerian zeharkatuko du hainbat igerilarik.

Ihintza Elustondo

Ur tantak elkartzean sortzen dira olatuak, eta olatuz olatu sortzen da itsasoa. Itsasoaren mugimendua, berriz, marea bilakatzen da, indar handiko ur multzoa. Halaxe, hasieran lau ur tanta baino ez zirena, Marea Urdin bilakatu da. Izan ere, oihartzun handia lortu duen arren, lau lagun baino ez daude Marea Urdina egitasmoaren atzean: Leire Zeziaga (Oñati, 1974), Aritz Orbegozo (Azpeitia, 1975), Pablo Dominguez (Ordizia, 1972) eta Julen Esteban (Azkoitia, 1973). Esteban Azpeitian bizi da, eta gainontzekoak herrian bizi izandakoak dira.

Azken boladan, egitasmoaren inguruko aldarriak entzun ahal izan dira han eta hemen, baina zer da zehazki Marea Urdina? Autismoa duten pertsonak gizarteratzea eta gaiaren inguruan sentsibilizazioa sortzea helburu duen herri ekimena da. Horretarako, 570 bat igerilarik Gipuzkoako kostaldea igerian zeharkatuko dute erreleboak eginez, Saturrarandik Hondarribira. Uztailaren 7an eta 8an egingo dute zeharkaldia, eta, denen artean, 64 kilometroko ibilbidea osatuko dute.

Korrikaren antzeko formula baliatu dute antolatzaileek autismoa gizarteratzeko. Etapaka banatu dute ibilbidea, eta igerilariek, lau eta zortzi lagun arteko taldeetan, kilometro kopuru jakin bat egingo dute; gero, hurrengo taldeari pasatuko diote lekukoa, eta haiek jarraituko dute ibilbidea. Dena den, zeharkaldiak baditu zenbait ezberdintasun Korrikarekiko: batetik, segurtasuna bermatzeko, ezin du edozein herritarrek igeri egin, parte hartuko duten igerilariak kirol horretan gutxieneko jakintza bat dutenak izango dira; eta, bestetik, gauez eten egingo da zeharkaldia. Lau etapa herrikoi ere izango dira, talde handiagoek parte hartuko dutenak. Azken igerilariak Hondarribira iristean, berriz, festa handi bat egingo dute zeharkaldiaren bukaera ospatzeko.

"Mundua ez da perfektua"

Autismoa garuneko gaitz bat da, eta, gutxi gorabehera, biztanleriaren %1i eragiten dio. Autismoa duen pertsona bakoitza ezberdina den arren, badituzte ezaugarri komun batzuk, Orbegozoren arabera: "Harreman sozialetarako arazoak izaten dituzte, ez dituzte ulertzen harreman sozialetako arauak, hizkuntzarekiko gabeziak izan ohi dituzte, mugimendu estereotipatu asko egiten dituzte, inguruko estimuluak gehiegizkoak egiten zaizkie eta blokeatu egiten dira, bakoitzak bere teknikak izaten ditu blokeo horretatik irteteko...".

Ez da kasualitatea autismoa gizarteratzeko proiektu bat antolatu izana Marea Urdinaren sustatzaileek. Izan ere, gaitz horrek elkartu du laukotea: Orbegozoren semeak autismoa du, Estebanen anaiak ere bai, eta Zeziagak eta Dominguezek aurreko biak lagunak dituztenez, modu batera ez bada bestera, denek bizi dute gertutik gaitza. Eta ez da kasualita-

Marea Urdinaren antolatzaileak Saturrarango hondartz

tea kirol guztien artean igeria aukeratu izana ere, sentsibilizazioa sortzeko: lau sustatzaileak igerilariak edo igerilari ohiak dira.

Behar bat sumatuta sortu zuten Marea Urdina, Orbegozok azaldu duenez: "Gizartean autismoarentzat leku bat aldarrikatzeko beharra sentitzen dugu. Nik lehen pertsonan bizi dut zein den egoera: badirudi gizarte honetan ateak beti daudela denontzat irekita, baina batzuentzat gutxiago zabalduta daude besteentzat baino. Nik bi ume ditut, bata 'normala' da eta besteak ezgaitasun bat du, eta ohartu naiz lehenak zer ate dituen irekita eta bigarrenak zenbat oztopo aurkitzen dituen bidean. Denok berdin ordaintzen ditugu zergak, baina konturatu naiz nire semea ezgaitasun bat izateagatik bigarren mailako herritarra dela. Ate normaletik sartu beharrean, beti atzeko ateak jotzen eta limosna eskean ibili behar izaten dugu. Eta zerbait ematen badigute, gainera, eskerrak eman behar izaten ditugu. Horren aurrean, beti ikusi izan dugu zerbait egiteko beharra".

Askotarikoak dira autismoa duten pertsonek eguneroko bizimoduan aurkitzen dituzten oztopoak. Marea Urdinaren sustatzaileen arabera, ez dituzte beste umeek izan ohi dituzten erraztasunak izaten kirol nahiz kultur ekintzetan parte hartzerakoan, ikastetxeetan... Horren aurrean, gizarteak ardura bat duela uste du Dominguezek: "Behar batzuk dituen pertsona batek elkarte batera jotzen duenean, nola erantzuten diogu? Guk behin eta berriz esaten dugu horixe dela ikusarazi behar dena: nola hartzen ditugu inguruan ditugun guztiak kirol nahiz kultur taldeetan, ikastetxeetan...".

Zailtasunak agerikoak diren arren, Orbegozok argi du egoera horri aurre egin behar

ZEHARKALDIA

Non? Saturrarandik Hondarribira.
Noiz? Uztailaren 7an eta 8an.
Ordutegia? Zapatuan, 08:00-15:30, eta, igandean, 07:00-17:30.
Ibilbidea? 64 kilometro.
Nork? Igerian gutxieneko esperientzia duten 570 bat igerilarik parte hartuko dute zeharkaldian.
Zertarako? Autismoa gizarteratzeko.

an. **Marea Urdina**

> "Konturatu naiz nire semea ezgaitasun bat izateagatik bigarren mailako herritarra dela"
>
> **ARITZ ORBEGOZO**
> Marea Urdinaren sustatzailea

> "Norbanako bakoitzak asko egin dezake autismoa duten pertsonek gizartean leku bat izan dezaten"
>
> **PABLO DOMINGUEZ**
> Marea Urdinaren sustatzailea

zaiola. "Askotan, geu gara okerrenak; geuk ixten ditugu ateak: 'Guk ezin dugu hor izenaeman', pentsatzen dugu. Ezgaitasuna duen ume bat izan aurretik, mundu hau ezezaguna zen niretzat; iruditzen zitzaidan denok perfektuak ginela eta gizartea ondo zihoala. Antzerkira edo igeriketara joaten zara, eta ume denak zoragarriak dira. Eta non daude beste denak? Etxean. Zergatik? Ez dagoelako haientzako lekurik gizartean. Perfektua den gizarte bat ari gara erakusten, eta ez da: jende pila batek du ezgaitasunen bat. Eta haiek ere parte hartu nahi dute igerian, musika eskolan, antzerkian... edozer gauzatan. Orain, ez da hori posible, baina, gauza txiki batzuk eginda, bai. Herritarrek emandako pauso txiki batzuei esker nire semea txapelketa batean irten zen igerian, kros batean parte hartu zuen andereño batek bultzatuta...".

"Izugarrizko babesa"

Sare sozialak eta ahoz ahoko transmisioa tarteko, berehala izan du jendeak Marea Urdinaren berri, eta jende ugarik babestu du egitasmoa era batera ez bada bestera: bideoak grabatu dituzte batzuek, diruz lagundu dute proiektua besteek, eta asko eta asko izan dira Marea Urdinaren kartelaren atzean jarri eta argazkia ateratzera animatu diren herritarrak. Baina zer gertatuko da egitasmoa babestu duen jende horrekin guztiarekin aurrerantzean? Izan ere, Marea Urdina uztailaren 8an bukatuko da, itsas zeharkaldia amaitzen den egun berean, baina gero beste lan bat

etorriko da, “askoz ere sakonagoa” izango dena.

Uztailaren 8ko aparra pasatzen denean, beste pauso batzuk ematea tokatuko da. “Gure asmoa da hemen mobilizatu diren emozio eta indar guztiak bateratzea, eta horiek ondo bideratzen asmatzen badugu, izugarria izango da. Izan ere, sekulako sarea osatu da Marea Urdinaren bueltan, ez genuen halakorik imajinatu ere egingo”, azaldu du Dominguezek. Horregatik, babesa agertu duten taldeekin elkarlanean jarraituko dute aurrerantzean; elkarte horiei konpromisoa eskatuko diete Marea Urdinaren sustatzaileek. “Hau bukatzen denean, elkarte horietara joango gara, eta esango diegu: ‘Gogoratzen al zarete gurekin? Orain pausoak eman ditzazuen nahi dugu. Zer eskaintzen duzue behar bereziak dituzten umeentzat? Argazkia ateratzea baino zerbait gehiago baita Marea Urdina”, adierazi du Orbegozok.

Ezkerretik eskuinera, Orbegozo, Zeziaga eta Dominguez. **Ihintza Elustondo**

> “Gu lau bakarrik gara, eta jendearen laguntzarik gabe, Marea Urdina ez litzateke posible izango”
>
> **LEIRE ZEZIAGA**
> Marea Urdinaren sustatzailea

Gizartea sentsibilizatzea da Marea Urdinaren jomuga nagusia, gero horrek aurrerapausoak ekarriko dituela sinetsita. “Gure asmoa da orain jendearen barruraino iristea, eta gero haiek esatea: 'Egoera honen aurrean, erantzun egin behar dut nik!'”, dio Dominguezek. Administrazioari zuzenean aldaketak egiteko eskatu beharrean, nahiago izan dute herritarrekin eskuz esku lan egin. “Uste dugu norbanako bakoitzak gauza asko egin ditzakeela autismoa duten pertsonek gizarte honetan leku bat izan dezaten. Guk nahiago izan dugu goitik behera joan beharrean, behetik lanean hasi”, azaldu du Dominguezek.

Helburua: ateak zabaltzea

Proiektua martxan jartzeko, dirua patrikatik jartzea pentsatu zuten hasiera batean Marea Urdinaren sustatzaileek, baina egitasmoa handitzen hasi zenean, finantzaketa kolektibo kanpaina bat egitea erabaki zuten. Guztira, 5.000 euro bildu zituzten kanpaina hartan, eta horrekin hasi zuten proiektua. Itsas zeharkaldia antolatzeko beharrezko elementuak ordaintzeko baliatuko dute diru hori, eta, ondoren, zerbait soberan gelditzen bada, herrian inbertituko dute. “Zertan? Ezgaitasunaren inguruko ateak irekitzen”, azaldu du Orbegozok.

Marea Urdinarekin bat egin nahi duenak badu oraindik horretarako aukera. Hain zuzen ere, *www.mareaurdina.org* webgunea zabaldu dute, eta sustatzaileekin harremanetan jartzeko aukera dago bertan. “Norbaitek berak egiten dakien horretatik lagundu nahi badu, jar dadila lasai gurekin harremanetan”, azaldu du Dominguezek. “Gu lau lagun bakarrik gara, eta jendearen laguntzarik gabe, Marea Urdina ez litzateke posible izango”, erantsi du Zeziagak. Izan ere, olaturik handienak ere, tantaz tanta sortzen dira.

Oasia

olatz aguado

Gure herriko harrizko etxe eta lurraren erdi-erdian oasi bat sortzen da astero. Urte asko dira hara joan beharra izaten dudala. Asteartero hasten da dena. Asteartero, nire etxe zaharraren egurrezko leihoen dardarak esnatzen nau. Burdinezko zutabeen hotsek eragiten diete nire etxeko leiho zaharrei dardara; furgoneten zein kamioien motorren eta goiztiarrenen "egun on" hotsek.

Lo sakonenetik esnatu arren, ia saihestezina zait asteartea dela ohartzea. Berehala kutsatzen eta pozten nau dardarak, eta zera pentsatzen dut: "Gaur ere bizi-bizi sortu da oasia herriko plazan!". Eta sakonago pentsatuta: "Ez dute, ez, meritu makala!".

Sukaldera joan eta kafe-makina martxan ipini ahala, hozkailua ireki eta beheko apalei erreparatzen diet, ia "berderik" ageri ote den egiaztatzeko. Batere ez, astearte goizero bezala! Eta hozkailuan zer landatuko dudan pentsatzen hasten naiz: porruak, kalabazina, kalabaza, patata, piperrak, berenjena... Mmmmm, zainzuriak oraindik ez, oso garesti daude eta...

Etxea oratzeko leihoak ireki eta dardara lotsagabe sartzen da sukalderaino. Segidan, zerura begiratzen dut zer kolore duen ikusteko. Zeruak kolore argia badu, poztu egiten naiz; aldiz, ilun badago, ni ere goibeldu egiten naiz, baina era berean, joan beharra pizten zait!

Oasia goiztiarra da. Goiz agertu eta goiz desagertzen dena. Eguraldi makurrenean ere ez ditu koloreak galtzen, ezta umorea ere! Asteartero elkarrekin egoten garen arren, Mariak eta Jabierrek sekulako ongietorria egiten didate. Ez da erosketa ikaragarria egiten diedalako, baizik eta oasia bizirik mantentzeko bai haiek eta bai ni beharrezkoak garenaren kontzientzia dugulako. Kontuak berritu ostean, hozkailuan landatu nahi ditudan barazkien zerrenda esaten diet. Eta erosle *vip*a sentiarazten naute! Mariak edo Jabierrek despatxatzen nauten bitartean hasten da bat-bateko umore ikuskizuna. Ondo baino hobeto ezagutzen ditut bi pertsona horiek, eta benetan gozagarriak dira haiek asteartero eragiten dizkidaten barre algarak. Konturatzerako, dena poltsetan txukun sartuta izaten dut; ordaindu, eta astearteroko legez, esker oneko ardo botila bat sartu dit Mariak poltsan. Behar bezala agurtzen dugu elkar, "datorren asteartera arte" esanez, eta zerurik ilunena ere argitu egiten zait.

> Astearteroko dardara bizirik manteatzearen parte izan naiz, eta hala izango naiz ahal dudanera arte

Oasiaren metafora

Erosketak bi txinga bailiran eramaten ditut karrerara. Eta buelta azkar bat ematen dut azkar desagertuko den astearteroko azokan. Sudurretik bakailao gazituaren usaina sartzen zait, zintzilik dauden baratxuri txirikordatuek pizten dute nire arreta eta arnasa sakon hartuta fruta freskoaren usaina barruraino sartzen zait. Hori guztia, jendearen jardunaren doinua lagun.

Astearteroko dardara bizirik mantentzearen parte izan naiz, eta hala izango naiz ahal dudanera arte. Ez ote zaio asteazkenetako periari gertatu zitzaiona gertatuko... Ez nuke nahi oasiaren metafora egi bihurtzerik. Ez nuke nahi leihoen dardara entzun dudan ilusioarekin esnatzerik astearte goiz batean.

Elkarreraginezko nobela

anartz izagirre

Lana, lana omen da, eta kexatzea ez ei da zilegi okerrago dagoeneik ere badelako

Ikara ematen du denbora zeinen azkar pasatzen den ikusteak. Jabetzerako, Ikastolan makila eskuan inurriak astintzen ikusten zenuen umetxoa unibertsitatera doa, eta konturatzen zara herriko tabernen izenak nola aldatu dela zure bizitza ere. Segundo baten gorabeheran gure ohiturek, betebeharrek eta asmoek saihestu ezin den bira bat eman dezakete, eta aurretik zeure buruan idatzita zenuen gidoi imajinarioa birziklatu beste erremediorik ez duzu.

Gogoan dut txikitan elkarreraginezko nobelak oso gogoko nituela. Istorioa bide ezberdinetatik aukeratu zenezakeen, zure inertziak edo kuriositateak gidatuta. Aukeratzen zenuen bidearen arabera, ipuina laburragoa ala luzeagoa izan zitekeen, amaiera pozgarria edo etsigarria izan edo dibertigarri bezain aspergarria. Atzera egin zenezakeen, tranpa egin, eta bestelako aukera bat hartuz gero, izango zenukeen amaiera ikusi, bizitzan ez bezala.

Demagun langabetua zarela. Egunkaria ireki duzu, eta zure herriko langabezia tasa jaisten ari dela ikusi duzu. %8 da orain. Tokiko agintariak dio, inguruko eskualdeekin alderatuz gero, zure eskualdeko egoera "oso ona" dela, eta ondo bidean laster izango garela amaiezin irudikatu izan dugun krisi ekonomiko honetatik kanpo.

Imajinatu kanpora zoazen norbait zarela. Amaitu berri duzu zure bigarren graduondokoa. Hegazkin-txartelak eta ekipajea esku artean dituzu. Gustura zinen, bazenekien ordura arte non igaroko zenituen lanean datozen hilabeteak, baina azken orduko dei bat jaso duzu, praktika-kontratu baten eskaintza, gustura aritu zinen leku hartatik. Eskaintza "oso ona" hori ere, eskaintzailearen ahotik. Lau urte barru izan zenezakeen ustezko postu hobe bat bermatzeko ezinbesteko pausoa.

Azkenik, imajinatu zure herrian lanean diharduen %92 horren parte zarela. Irakaslea zara, eta azkenean lortu zenuen lan-poltsa bedeinkatuan sartzea. Albiste "oso ona" izan zen zure ingurukoentzat. Lagunekin pote bat hartzen zabiltzala, datorren astean Gasteiza joan behar duzula lanera konturatu zara, eta aurreko bi asteak Donostian eman dituzu lanean. Potea mikazten dizu horrek.

Aukera-kostua

Gehiegi kexatzen omen gara, ordea. Lana, lana omen da, eta kexatzea ez ei da zilegi okerrago dagoenik ere badagoelako. Uste zenuen bezain heldu, erantzule ez zarela iritzi diote zure ingurukoek alde egin duzulako, lanik topatzerik izan ez duzulako edo lan bat izanda baldintzez kexatzeko astia hartu duzulako, lanean mutu, duzuna ere galtzeko inongo arriskurik hartu gabe ibili beharrean.

Elkarreraginezko nobela baten barruan bizi gara, baina konturatzen zara hauta zenitzakeen aukeretako hainbatek zianuro apartsua izan dezakeela amaieran, hegan egiteko hegoak geldiaraziko dizkizun zepoa. Berdin du biztanleriaren %8aren edo %92aren parte zaren, zeu egingo baitzaituzte gertatzen zaizun guztiaren erantzule. Txikitan bestelako ipuin bat saldu zizun dendariak, eta orain ipuinak aukera bi besterik ez dituela ohartzen zara: pilula urdina edo gorria.



Mondragon Unibertsitatea

GURE IKASLEEN AHOTAN

“Norbere burua ezagutzeko oso bidaia garrantzitsua da LEINN”

Mondragon Unibertsitateko Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) graduatu berri da Gratxina Lertxundi (Orio, 1995).

Zergatik aukeratu zenuen Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradua, eta zergatik hautatu zenuen Mondragon Unibertsitatea?

Osasun arloa interesatu izan zait beti, eta arlo horretako graduren bat ikastea zen nire hasierako asmoa. Oraindik ez nuen LEINNen berririk. Egun batean konturatu nintzen ez nituela aukerak gehiegi begiratu, eta gurasoei hitz bat esatea besterik ez nuen behar izan Mondragon Unibertsitatearen webgunean sartu eta LEINN gradu berritzailearen berri izateko. Ikasketen deskribapenarekin maitemindu ziren gurasoak; nik, berriz, ez nuen guztiz ondo ulertu, baina haien konbentzimenduak konbentzitu ninduen. Castinga egin eta graduaren zurrunbiloan murgildu nintzen, ia-ia konturatu gabe.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

LEINN zurrunbilo bat bezala bizi izan dut. Hasieran, ez nuen guztiz ongi ulertzen non nengoen. Inoiz bizi gabeko inguruagiro batean aurkitzen nintzen, nahi genuenari ekiteko askatasunarekin eta norberak bere erronkei aurregiteko ahalmenarekin. Norbere burua ezagutzeko bidaia oso indartsua da.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta ba al da hobetu beharreko zerbait?

Labe bat bezalakoa da; egin gabe sartu eta eginda ateratzen zara. Baina erre gabe ateratzeko kontuz ibili behar duzu. Oso esperientzia bizia da, taldean ordu asko, elkarbizitza, porrotak... Batez ere, egoera ezberdinei aurre egiteko gaitasuna izaten ikasi dut. Dena zure esku dagoela sentitzen duzu 18 urte besterik ez dituzunean, eta errespontsabilitateak indartsu egiten zaituela sentitzen duzu.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, dual eredua tarteko. Non ari zara lanean?

Lau urte hauetan, beste hainbat gauzen artean, Gure Bazterrak musika promotora sortu da. Taldekide asko aritu gara bertan lanean, baina gaur egun, Sara Zozaya eta biok gabiltza buru-belarri. Gure Bazterrak kontzertuen produkzioaz arduratu da orain arte: kontzertu txikiak, handiagoak, jaialdiak eta abar. Orain, horrez gain, musikaren arloko app bat merkaturatzea da gure ideia, horri buruz egin baitugu gradu amaierako proiektua.

Zer ekarpen egin dizu eredu dualak?

Lehenik eta behin, ideiarik ez daukazunean begiak irikitzen laguntzen dizu gauza askotan aritzeak. Inoiz pentsatuko ez zenuen proiektu mota batean sartzen zara, eta bat-batean, ideia gehien dituena zara edo ez dakizu nondik hasi oso gustuko zenuen arlo batean. Dena ikasgaia da, eta erronka berezi bat ere bai. Irakurketak ere asko laguntzen du, baina ondoren egiten duzun gogoetak gehiago. Dena zalantzan jartzen, eta izandako esperientzietan eta pentsamenduentan oinarrituta, nire pausoak eta baloreak eraikitzen ikasi dut, bai lanean eta bai bizitza pertsonalean aurrera egiteko.

Zer asmo dituzu etorkizunera begira?

Musikaren munduan gustuko tokian sentitzen naiz, eta asko ikasten ari gara biok. Egun bakoitza desberdina izaten da, eta horregatik, egoera desberdinak bizitzen ditugu. Etorkizunean nork daki, baina momentuz behintzat, Gure Bazterrak ogibidetzat ikusten dugu. Graduan zerbait ikasi badugu, hori posible egiteko metodoak badaudela eta ideia asko dituguela da. Promotora bat izan daiteke orain, eta behar bada, bihar app bat besterik ez. Musikarekin gozatzen dugu, eta, momentuz, horretan jarraitzea da asmoa.

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Kanpaina, martxan

Errenta aitorpena euskaraz egitea sustatzeko kanpaina berria jarri du martxan Uemak. Iaz, 7.594 errenta aitorpen egin zituzten herrian, eta horietatik 3.013 izan ziren euskaraz, 2016an baino gutxiago. ✎ Uztarria

2017ko errenta eta ondarea aitortzeko garaia heldu zaie Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herritarrei, eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du martxan beste urte batez.

Euskararen normalizaziora bidean, errenta aitorpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea "urrats bat da" Uemaren aburuz. Urratsa "sendoa" izan dadin, ordea, herritarren babesa eta parte-hartzea "beharrezkoak" direla esan du mankomunitateak. Horregatik, euskarak administrazio publikoan ere "dagokion lekua" izan dezan, mankomunitateak dei egin die herritarrei errenta aitorpena euskaraz egin dezaten.

Errenta aitorpena egiteko hainbat modu dago, eta lurralde bakoitzeko foru ogasunaren arabera webguneak, telefonoak eta gainerakoak aldatzen diren arren, "moduak antzekoak" direla azaldu dute. Kanpainarekin lortu nahi dutena da herritarrek euskarri horietan euskararen aldeko hautua egitea. "Batetik, datuetan ere islatu dadin udalerri euskaldunetan euskaraz bizi garela, eta, bestetik, administrazioa euskalduntzeko bidean eragiten jarraitzeko", azaldu du Uemak.

Azken urteetan errenta aitorpena euskaraz egin duten azpeitiarren kopurua goraka joan bada ere, iaz datua jaitsi egin zen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, 2016an Azpeitian 7.541 errenta aitorpen aurkeztu zituzten herritarrek, eta horietatik 3.027 egin zituzten euskaraz; %40 pasatxo. 2017an, aldiz, 7.594 errenta aitorpen egin zituzten herrian, eta horietatik 3.013 egin zituzten euskaraz.



Beste urte batez jarri du martxan kanpaina Uemak. **Uema**

Aitor Arana. **Miriam Luki**

ESANA DAGO

"Hizkuntza sortua da esperantoa, baina ez da artifiziala"

"Esperantistok badakigu [esperantoak] oso ondo funtzionatuko lukeela gobernu ahaltsuak inplikatuko balira"

AITOR ARANA
esperantista

"Udaberria da baratzerako garai txarrena: udarako landatzen hasten zara, udazkenean landatutakoak gastatzen dira eta jasotzeko gutxi izaten da"

AIORA ETXEBERRIA
Sakona etxaldeko kidea

IKA argi lanak s.l.
Instalakuntza Elektrikoak
Aiertza Autoak
CITROËN
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Zuri ala beltz

txetxu urbieta

Kazetari baten balioa bere agendaren araberakoa da. Nik ere badut neure agendatxoa. Kirolariak dira nagusi. Baina beste perlatxo batzuk ere ageri dira. Esate baterako, bi ikerlari. Beren lanean bi artista, beren arloan oso ezagunak, baina jende arruntarentzat erabat ezezagunak. Bati esker ezagutu nuen bestea, eta biak ditut lagun. Biak EHUn ikasitakoak dira, biak lanean ere egun berean hasi ziren EHUn. Bi maisu. Biek, orain gutxira arte, beti elkarrekin egin dituzte ikerketa eta egitasmo guztiak.

Atzerritik eskaintza asko jaso dute, denak baztertu dituzte. Jaso duten azken eskaintza, ordea, ukaezin horietakoa izan da. Bientzat berebiziko aukera. Baina batek, ezkongabea bera, etxean jarraitzea erabaki du. Ikerketa maite du, baina ikerketaz kanpo Euskal Herrian duen bizitza eta bizitzeko era ez ditu aldatu nahi. Besteak, ezkondua eta urtebeteko bikien ama, eskaintza onartzea erabaki du. Bere ikerketa lanerako sekulako aukera iruditu zaio, eta bere ustez, bikotekidearentzat eta haurrentzat ere esperientzia aberasgarria izango da. Batak bestearen erabakia onartu du, eta besteak batarena ere bai. Biak pozik. Batek ibilbidea osoa etxean egitea erabaki du. Besteak, etxeko DNA bihotzean duela, kanpora joateko erabakia hartu du. Biak gustura. Eta EHU harro. Berak hazi eta hezitako bi ikerlari lan bikaina egiten. Bata etxean, bestea atzerrian. *One club man*? Badakit zuetako asko ez zaretela ados izango, baina niretzat tontakeria hutsa. Pertsonak, aukerak, norberaren egoera, ausardia... balio duena gizatasuna eta lana da. Etxean ala atzerrian, dauden tokian daudela, aukeratu duten bidea aukeratzen dutela, bihotzean beti Euskal Herria duten bi maisu.

IKUSTEKOA!

▲FALTAKO DU AUTOREN BATEK...

Soreasuko lur azpiko aparkalekuaren irteeran, aparkalekuko txartela sartzeko makinaren ondoan, Seat markako auto baten ikurra izan da egun batzuetan. Aurkitu zuenak zelorekin itsatsi zuen barandan, eta galdu duen autoaren jabeak ere dagokion tokian zerbaitekin itsatsi beharko du, berriz gal ez dezan. ✎ **Julene Frantzesena** ☜ **Mailo Oiarzabal**

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...

ieltxu cavallero

Denon ardura da natura zaintzea

INGURUMENA. Apirilak euri ugari utzi du, ibaiak gainezka egiteko arriskuarekin. Arrisku hori gizakiok areagotzen dugu ibaiak zaborrez beteta, mendiei ebakiak eginda eta lurra kenduta. Horri zuhaitz falta eta deforestazioa gehitu behar zaizkio; izan ere, mendiari xurga dezakeen ur kantitatea asko murrizten zaio. Nahiz eta gu burugogor jarri, naturak beti izango du indar gehiago. Denon ardura da natura zaintzea.

Eraberritu dute

HEZKUNTZA. Herritar ugari pasatu gara Betharramtako ikasgeletatik. Orain, gure belaunaldi txiki berriek guztiz eraberritutako eskolaz gozatu ahal izango dute. Herritarrek boz bidez erabakitako kanpoko itxura berrituarekin, lehen zuen zahar itxura hura erabat berritu diote.

Eredu zarete!

EKONOMIA. Azken hilabeteetan, astelehenero, indar handia hartu duen mugimendu bat elkartu dela ikusten ari gara Espainian, baita Azpeitian ere: pentsiodunak. Pentsio duin batzuen alde eta %0,25eko igoera lotsagarri horren aurka ari dira borrokan. Pentsiodun horietako asko, ziurrenik, Lemoizko zentral nuklearraren aurkako protestetan parte hartutakoak edo "gris" delako haien aurrean korrika eginak izango dira, adibidez. Urte asko pasatuta ere, gaur egun eredu izaten jarraitzen duzue. Gora zuek!

INKESTA

Animaliarik ba al duzu edo izan al duzu etxean?

✎ **Ainitze Agirrezabala**

LIDE AIZPURUA
9 urte

"Une honetan ez dugu, baina 4 urte nituela bi dortoka izan genituen. Hil egin ziren, ordea".

EVA LIZARRALDE
50 urte

"Bi hankakoak bakarrik! Semealabek bai, eskatu izan digute katua edo txakurra, baina animaliak hobeto daude baserrian. Arrain gorri bat izan genuen garai batean, barraketan lortuta".

ANTONIO BEREZIARTUA
72 urte

"Zozoa eta birigarroa ditut, duela zortzi urtetatik. Goizean goiz kantari hasten dira, eta konpainia polita dira. Azkoitiko Kukuerrin dudan baserrian, berriz, zazpi txakur ditut".

Bule! Bule!

lierni varela

Atzerrira joan eta turistaz mozorrotzen naizenean, sarri pentsatzen dut sorterriaz. Ederra da bestelako kultura, gizarte eta paisaietan murgildu eta hangoa hemengoarekin alderatzea.

Iaz, Indonesian izan nintzen bazterrak miatzen. Behin, goizeko hiruretan Batur sumendia igotzeari ekin genion. Eta esan dut bai turistaz mozorrotzen naizela, ba, hara non sartu zitzaidan turista konplexua! Zer zen hura! Ez ginen goiz jaikitako "bule" (indonesiarrez, pertsona zuri) bakarrak... Donostiako alde zaharrean baino jende gehiagok egin genuen topo, linterna eskuan genuela ilunpean mendia igo eta lekurik onenetik egunsentia ikusteko. Mekara erromesaldia zirudien. Ardiak bezala, ilaran. Ezin mendia lasai igo; turistaz leporaino zegoen, asko bide bazterrean eserita, mingaina kanpoan. Halere, "buleok", burugogor gora. Nola itzuliko ginen etxera hura ikusi gabe!

Sentimendu kontrajarri haien aurrean, hango panorama etxera ekarri nuen, eta azken boladan Euskal Herrian izandako turismo uholdeaz oroitu nintzen. Sumendi hura "bulerik" gabe irudikatu nuen eta muturreko egoera hartara zerk eraman zuen pentsatzen jarri nintzen. Eta Euskal Herriko tsunamia kostatik gurera etorriko balitz egoerak zer itxura har zezakeen irudikatu nuen (gogoratu, olatuaren lehenengo zipriztinak jada heldu zaizkigu).

Imajinatzen dozenaka San Sebastian Region logopeko autobus Azpeitian sartzen? Imajinatzen ehunka turista Xoxoteko bidean gora, gida eta guzti, San Inazio jesuiten aitzindariaren estatuarekin selfie bat ateratzeko? Eta Loiolako zelaietan. Eta Enparan dorretxe inguruan. Eta herrian zehar jarritako informazio kartelei segika... Imajinatzen zure tabernarik edo kafetegirik gogokoena turistaz leporaino beteta, *pintxotourra* egiten...? Ez dugu Zumaia edo Gaztelugatxe izan nahi... baina kanpora joandakoan turista mozorroa jantzi, badaezpada ere.

Galdetzen hasita, noiz hasiko dira herriko alderdi politikoak datorren urterako alkategaiak jakinarazten? ✎ **Uztarria**

Erlijioak hiltzear?

joxe arregi

Erlijioaren etorkizunak, kristautasunarenak gure artean, bosta axola die gehienei. Ez gutxirentzat, halere, kezkagarri izan liteke. Niretzat, erronka da.

Stephen Bullivant St. Mary Unibertsitateko (Londres) irakasleak ikerketa bat argitaratu berria du. "Helduak eta Gazteak eta Erlijioa Europan". Bat baino gehiago harrituko du, harritzekoa ez bada ere, ikertzaile britainiarraren ondorio irmo eta biribilak: erlijioa "hiltzear" da gure kontinentean. Areago: "gazteei" buruz dioenak 60-65 urtez beherakoentzat ere hortxe nonbait balio du: igandeko mezan, hortik beherakorik ez baita gure herrietan apenas inor ikusten.

Hori Europan... esango da. Bai, baina Europan gertatzen ari zaiguna ez ote da beste kontinenteetan ere gertatuko? Nik uste baietz. Ezagutza zientifikoak hedatu ahala, jendeak karta-tenporatan edo errogatibetan sinesteari uzten dion bezalaxe uzten dio "jatorrizko bekatuan", aita santuaren infalibilitatean, deabruengan nahiz "Jaun Goiko" batengan sinesteari. Dogma tradizional guztiekin berdin. Eta Europan bezala edonon. Ikuspegi zientifikoa edo unibertsitateko jakintza zabaldu ahala galtzen dute sineskizun guztiek, erlijio sineskizun tradizionalek batik bat, sinesgarritasuna. Eta hor sortzen zait bigarren galdera, are premiatsuago: aspaldiko dogma eta erlijio-hizkuntza zaharrak gero eta gehiagorentzat ulergaitz eta zentzugabe bilakatzen ari diren ari diren honetan, erlijio zaharrek "esan nahi zutenak" ez ote guretzat zentzurik? Niretzat bai, baina antzinako forma erlijiosoetatik askaturik, ez bestela.

Hiru irtenbide ikusten dizkiet, beraz, erlijioei: lehengo formak errotik eraldatu, edo betikoari eutsi kosta ahala kosta, gaurko gizartean eta kulturan ghetto itxi bihurturik, edo... erabat desagertu.

Erlijio-forma zaharrak galtzea ez lioke axola, baina iturri zaharreko urari beti berria bizi-arnasa hauspotzeko ez baliatzea galera handia izan liteke. Hori da niretzat erronka.

HAU HOLAXEENK

enok sudupe

Barrura begiratzeko

felipe murillo

Izan zinenaren eta izango zarenaren artean begira duzun testigu bakarra zeu zara mundu mailako gerra intimo eta latz batean; beti zorretik kulpara doan dei galdu batean, akusazio eta testigua bera den epaiketa amaigabean. Nahi duzuna ez duzu behar, behar omen duzuna ez duzu nahi, eta... gehiegi luzatzen diren salbuespen egoeretarako emergentziazko planetan, ezetz esaten ez dakizulako esaten duzu bai. Sinesten duzulako hainbat gauza arinek mugitu dezaketela handi bat, ez dena badela beste norbaitentzat zerbait.

Beldurrak, gose denean, edozer jaten du, baina, aldi berean, beldurrez garelako eusten diogu elkarri, eta 'zure besarkaden larritasun minek maitatu eta bildu baino itto egiten dituzte besteak?', galderak berak erdibitzen zaitu. Badakizulako bihotz bakoitzak bi galdera ikur ezkutatzen dituela, buelta emanez gero, amu bana egiten dituzten bi galdera ikur. Beraz, utz itzazu alde batera erantzunak, entzuteko prest ez bazara. Izan ere, dena da horren erraza hasten, baina horren nekeza hazten, eta gero, berriz, ia ezinezkoa ahazten.

Beste behin ere denborak zureak ziren lanak egin ditu, Diogenesen sindrome emozional batek jota bezala. Berandu ibili zaren arren, garaiz heldu zara zeu zarenaren beldurrez beste zeu bat sortzeak zer emango dizun kalkulatzera. Eta orduan erabaki duzu. Erabaki duzu, erori bazara ere, gorantz erori zarela, eta zeure barrutik salto eginez, zeure buruaz beste bat egitea. Animalia izu eta ederra zara.

Ateak sartzeko ala irteteko diren ez dakigun arren, barrura begiratzea. Maite dugunok badakigu Anariren betaurrekoak direla ondo merezitako Adarra saria jasotzera eraman dutenak. Zorionak!

Erotikan Plax!

haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)

Erotikan Plax! sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920 Hitzorduak, maiatza: hilaren 12an (10:00-13:00) eta 23an (16:00-19:00).

MARIA ANGELES AZKUNE

Jaio. 57 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Tabernaria.

Tabernaria da Maria Angeles Azkune, eta hil honetan berari egokitu zaio Erotikan Plax!-eko kideen galderei erantzutea.

Noiztik egite duzu lan tabernan?
Izango dira 25 bat urte...

Sexualitateari buruz hitz egiten al da Laratzen?
Bai, jende helduarekin batik bat. Baina azaletik, erdi broman, gehiegi sakondu gabe.

Harremanak eraikitzeko, barra barruan edo kanpoan egotea nahiago?
Kanpoan, eta jende gaztearekin.

Ligoteo sanoak edo baboseoak, zer ikusten dituzu gehiago?
Sanoak, dudarik gabe, eta hobe horrela.

Zein da harreman osasuntsu baterako koktelik onena?
Elkar entzutea eta errespetatzea, desadostasunak barne.

Zer behar da bezeroa ondo zaintzeko?
Irribarrez hartzea, eta zerbait kontatu nahi badu, entzule ona izatea.

Zer jarriko zenuke laratz batetik zintzilik su gainean erretzen?
Pentsamendu txar guztiak.

Zerekin mozkortuko zinateke gustura?
Maitasun pila batekin.

Maitasuna, txupito gogorretan edo xuabe-xuabe poteoan?
Gaztetan, txupito gogorretan, baina, orain, xuabe-xuabe.

Goiza ala gaua?
Gaua, emozio gehiago du eta.

Edari inspiragarri bat aukeratzekotan, zein?
Garagardo eder bat.

Izotza urtzeko moduko plan bat?
Mendi gailur batean izarrak ikusten egotea.

Xarma berezia duen leku bat?
Edozein hondartza ertz.

Ba al duzu Laratzen bizitako pasadizoren bat?
Lagun artean, festa giroan, askotan abesten aritzen gara.

Panpinak mimatzen

Sara Gorostiagak panpinak egiten ematen ditu orduak. Kakorratza edo oihalak baliatzen ditu horretarako, baina eskuak eta mimoa ditu tresna nagusi. ✎ ᔓ **Ihintza Elustondo**

▲**OTU ETA EKIN.**
Duela pare bat urte hasi zen panpinak egiten Sara Gorostiaga (Azpeitia, 1976). Andareak izugarri gustatzen zaizkio: "Oso erakargarriak iruditzen zaizkit. Erakusleihoetan, ume txikiak bezala, haiei begira egoten naiz, eta pentsatzen dut: 'Zer egiten duzu adin honekin panpinei begira!'". Berezko lilura eta josten zekiela baliatuta, probatzea erabaki zuen. Halaxe egin zuen aurreneko panpina, eskuz.

▲**KAKORRATZAREKIN EDO OIHALEKIN.**
Bi motatako panpinak sortzen ditu Gorostiagak: haietako batzuk kakorratzarekin egiten ditu, eta besteak josteko makinarekin eta oihalekin. Lehenik, trapuzkoak egiten hasi zen, baina, pixka bat geroago, ahizpak kakorratzez egindako andare bat oparitu zion, eta halakoak egiten hastea otu zitzaion. Youtuben bideoak ikusiz ikasi ditu bi teknikak, eta dagoeneko horiek menperatzen baditu ere, "etengabe hobetzen" saiatzen da. Irudian, ezkerretik bigarrena oihalez egina da, eta, gainontzekoak, kakorratzez egindakoak dira.

▲**ASKOTARIKO MATERIALA.**
Bi motatako panpinei forma emateko, kotoia sartzen die Gorostiagak barruan. Batzuk egiteko, lodiera ezberdinetako kakorratzak eta haria baliatzen ditu. Trapuzkoak egiteko, berriz, oihala, patroiak, perlak, botoiak, goma, haria, josteko makina...

▲ **ESKUAK LAN TRESNA.**

Eskulanak egitea ikaragarri gustatzen zaio Gorostiagari. Josteaz gain, bolilloa ere egiten du, eta azken afizioa du panpinak egitea. “Eskulanak egiteak erlaxatu egiten nau. Tarteka, lan askorekin banabil, neure buruarekin haserretu ere egiten naiz, eta, halakoetan, kalera irten eta bueltatxo bat ematen dut. Baina, beste askotan, kalean nabilenean, etxera itzultzeko irrikaz egoten naiz panpinak egiten hasteko!”, azaldu du.

▲▶**DETAILEAK ZAINTZEN.**

Panpin bakoitzaren xehetasun guztiak ondo zaintzen ditu Gorostiagak: zapatak, belarritakoak, poltsak... Ilea ere, hari zatiak banan-banan josiz egiten die andareei. Aurpegia margotu ere egiten dio zenbaiti, makillajea erabilita. Gainera, badu ohitura bitxi bat: panpin guztiei haurren kolonia pixka bat botatzen die amaitzean, usain gozoa izan dezaten.

◀JOSI ETA JOSI.

Panpinak josten ordu asko ematen ditu Gorostiagak: “Egunean zenbat? Dauzkadan denak. Etxean nagoenean, denbora guztian, telebista jarri eta panpinak egiten egoten naiz”. Andareek lan asko eskatzen duten arren, ez da horretatik bizi Gorostiaga: “‘Hobby’ bat da niretzat”. Dena den, jendea hasi da pixkanaka haren afizioaren berri izaten: “Ahoz aho zabaldu da. Lagunek, lagunen lagunek... esaten didate: ‘Zer politak!’. Oro har, jendeari gustatu zaizkio nire panpinak”. Duela gutxi, webgune bat ere zabaldu du.

▼AMAITUTA, TXUKUN.

Izan estilo batekoa edo bestekoa, panpin bakoitza egiten astebete inguru ematen du Gorostiagak. Irudian, oihalezko panpin bat ageri da, amaituta eta txukun.

▲MIMOZ EGINA, NABARITZEN DA.

Gorostiagaren arabera, harrera ona ari dira izaten bere panpinak: “Ume bati bat oparitu nion, eta leku guztietara harekin joaten omen da. Beste batek, berriz, nik egindako andarea besterik ez omen du buruan”. Mimoz egina nabaritu egiten dela diote, eta egia izango da. Goiko irudia ikusi besterik ez dago.

IÑAKI SEGUROLA

filologoa

“zeresana ematen dut nabilen toki guztietan”

Su piztailea, iritzi emailea, zirikatzailea. Adjektibo ugari erabil daitezke bera deskribatzeko. Filologoa, idazlea eta Euskaltzaindiako urgazlea ere bada. **Julene Frantzesena**

Berak Azpeitiko “dorre biki” gisa bataiatu zituen etxeetako batean, baranda gorriak dituzten horretako etxebizitza batean, jarri du hitzordua Iñaki Segurola *Ogruek*. Ez du ahoan bizarrik filologoak, eta hark esanek edo idatziek sutan jarri dute bat baino gehiago aspalditxon. Elkarrizketa “koherentea” emateko asmorik ez duela argi laga du, ez duelako horretan sinesten: “Pertsonok haizeak eramaten gaitu batetik bestera; pertsonok ez dugu ia ezer erabakitzen”.

‘Urola Kostako Hitza’ egunkarirako idazten dituzun iritzi artikuluek sortzen dute zer esana herritarren artean...

A, bai? [barrez]. Badakit, bai, hala dela. Alferrik esango dut ezetz. Zeresana ematen dut nabilen toki guztietan. Nik ez dut idazten normalean jendeak idazten duen bezala, modu zibilizatu batean. “Nik uste dut, eta badirudi, agian, izan daitekeela...”, jendeak horrela idazten du, eta irakasten dute horrela idatzi behar dela. Nik uste dut ez dudala sekula horrela idatzi. Nire hitz egiteko modua herrikoia-edo da; jendeak hitz egiten duen moduan idazten dut, landuta, estilizatuta eta publikatzeko moduan jarrita, baina gertuago dago hortik. Exajeratu egiten dudala? Bai. Eta adibide bat jarriko dut: “Abenduko eguna, argitu orduko iluna”. Zer esan nahi du? Abenduan egunak motzak direla. Ba nire estiloa deskribatzeko erabiltzen dudan adibide bat da hori. Bestalde, txepelkerien beldur naiz. “Zer gauza txepel” horri ikara diot, eta batzuetan horren aurkako erreakzioa gehiegizkoa bezala izaten da. Idatzizko munduan euskaraz gauza estandar, zapal eta koskarik gabea egiten da, eta badirudi liturgia txepel batetik atera gabe gabiltzala beti. Horren aurkako barruko zera bat badut. Eta horregatik guztiagatik exajeratu egiten dut, igoal. Eta gertatu izan zait zerbait publikatu, eta bizpahiru hilabetera “pufa, hau bota nian ba nik!” pentsatzea, dena esan behar bada.

Eta jendeak zer esan dizu?

Denetarik. Dorre bikien testua, adibidez, ez zitzaion batere gustatu herritar bati. Beno “tonu gogorhori” da gustatu ez zitzaiona. Beste batek kalean “lotsagarria eta inpresentablea” zela esan zidan, eta beste batek gutuna bidali zidan... Horrelakoak ere gertatzen dira, eta, egia esan, azala gogortuta daukat; lagun batzuk galdu eta besteak irabazi. “Gu” batzuk daude, eta horiekin sartzen bazara, ba... Politikoki zuzena edo ez? Nik ez dut lanik hartuko aurrean dudan hori zer den esateko, hau da, gauza jakinak esateko; beste zerbait esango dut edo isildu egingo naiz!

Tonu zirikatzaile hori berezkoa duzu edo helburu jakin batekin bilatutakoa da?

Oso modu naturalean ateratzen zait. Zergatia ez dakit, baina pilota moduko bat egiten zait barruan, eta bota egin behar izaten dut.

Euskadi Irratian eta Azkoiti-

DATUAK

Jaio. 1962ko martxoaren 8a. **Herria.** Azpeitia. **Bizi tokia.** Azpeitia. **Lanbidea.** Filologoa.



ko Matadeiko Kontrako Eztarrixe irrati librean ere kolaboratzen duzu. Batean eta bestean askatasun berarekin aritzen al zara hizketan?

Esan daitekeenaren eta esan ezin denaren arteko mugak ez daude oso argi. Bata eta bestea mutur banatako bi irrati dira: Kontrako Eztarrixen ez dago ia mugarik, han esandako gauza batzuk ez dago beste inon esaterik, ez bada tabernan edo konfiantza giroan; eta Euskadi Irratian dotorezia landu behar da. Biak gustatzen zaizkit. Txikitan Betharrametako elizan epistola leitzen nuen: San Pablo apostoluak Corintotarrei, eta... Badut zerbait sermoilaritik, eta gauzak modu dotorean esatea gustatzen zait, era zirikatzailean ere bai, baina ez modu baldarrean edo gordinegian. Halere, saiatzen naiz mugez ari naizenean, bai edo ez erabakitzerakoan, badaezpada bai izan dadin. Hor ere "txepelkeriarik ez", esaten diot neure buruari.

Beti lortzen al duzu "txepelkeria" horietan ez erortzea?

Hori ez dakit nik esan behar dudan edo irakurtzen edo entzuten duenak esan behar duen, baina uste dut baietz, lortzen dudala. Egia esan, askotan folklorismora ere jotzen dut... *Hitza*rako idatzi nuen azken artikulua halakoa zen; azpeitiarrekin puntuak galtzeko eta azkoitiarrekin irabazteko egin nuen. Laster bukatu beharko dut kolaborazioekin, zertaz hitz egin edo idatzi gabe gelditu naiz eta.

Gaiak herrira ekartzeko joera duzu. Zergatik?

Gaurko mundu moderno eta garaikidean lokalista geratzen da, baina hori aldarrikatzen dut nik; horren alde nago eta nahita egiten dut. New York eta New Jerseyri buruz idaztea unibertsala da, baina Azpeitiaz eta Azkoitiaz idazten badut, "tipo hau hor zagok" esango dute, eta bai, hemen nago. Bere xarma du herriko gaiez aritzeak, eta bailaraz hitz egitean, denek ulertzeko moduan idatzi behar duzu. Hori gustatu egiten zait. Bestalde, gaur egun idatziak ez dira herrian edo eskualdean geratzen, sarean laster zabaltzen da hainbat artikulu.

Ogrue zara ezizenez. Nork asmatu zizun goitizena eta zergatik?

Gasteizen ikasi nuen Euskal Filologia. Unibertsitate garaian, sasoi hartan, bat nahi zuenean jaikitzen zen ohetik. 11:00ak baino lehen sekula ez nintzen joaten eskoletara, baina ikasketak bukatzean lanean hasi nintzen, eta 08:00etarako joan behar izaten nuen. Umore oso txarreko jaikitzen nintzen ohetik, eta Iruñeko bi pisukide *ogro* gora eta behera hasi zitzaizkidan. Pentsatzen nuen ezizena egun batzuetako kontua izango zela eta hantxe gelditu zela, baina ez; nire atzetik joan da. Esan behar dut orain beste era batera esnatzen naizela.

Ezizena aldatzeko moduan zara, beraz?

Ja ez naiz izenaren jabe, baina mundu guztiak hala deitzen dit. Hasieran, ez zidan batere graziarik egin goitizenak, oso fuertea da

MOTZEAN

LIBURU BAT?
Hilen xarma.

IDAZLE BAT?
Patziku Perurena.

HITZ BAT?
Askotasuna.

FESTA EGUN BAT?
Elegante Eguna eta Astearte Karnabal goizeko *fenardoa*.

JAKI BAT?
Kokotxak.

AZPEITIKO TOKI BAT?
Albergako iturriak.

BERTUTE BAT?
Hori nik ezin esan.

AKATS BAT?
Gehiegi hitz egitea, gehiegi berotzea, gehiegi estutzea.

pertsona bati horrela deitzea. Baina ja pegatu egiten zaizu, zurea da izena, zeu zara, eta orain molestatuko lidake beste ezizen bat asmatzeak. Iñaki deitzea, beno, baina beste ezizenik ez: Ogrue da nirea. Gainera, ez dut ezizen hori duen beste inor ezagutzen.

Filologoa zara ikasketaz, baina batek baino gehiagok pentsalari ere deitu izan dizu?

Nire buruari jartzen diodan titulu bakarra filologoa da; ez idazle, ez pentsalari eta ez ezer gehiago. Ze edozein huskeriagatik jendeak ematen dio haize bat bere buruari... Ez dut horretan erori nahi, eta beti bezala, horretan ere beste muturrean nago. Zer da pentsalari bat, bere gelan sartu eta "orain pentsatu egingo dut" esaten duen norbait? Hori ez da benetakoa, ez da horrela. Ni pitzatuta nago, ez hautsita edo puskatuta. Oso-osoa eta normalegia izanda ere, hemen ez dago ezer, eta pitzatua ere tamainakoa eduki behar da. Pitzatua eta etorria ditut nik, baina ez naiz pentsalari bat.

Hizkuntzarekin baduzu zera berezi bat, ezta?

Bai, nerabezarotik daukat hizkuntzarekiko sentsibilitatea. Batzuetan, pentsatzen dut amaren eragina jaso dudala, baina gauza hauek ez dute azalpen jakinik. Hizkuntza baten galera prozesuan beti izaten da batere axola ez zaion jendea eta mina eragiten diona, eta ni minduetan nengoke.

Euskaltzaindian lan egina, urgazlea ere bazara. Zein da zure egitekoa?

Ikasketak bukatu eta Orotariko Euskal Hiztegiaren proiektuan hasi nintzen lanean. 1984an hasi eta 2005ean amaitu zen proiektua, eta lehen unetik azkenengora arte aritu nintzen horretan. Urgazlearena Ibon Sarasolari okurritu zitzaion, hala esan zidan: "Hi, torero –Ogro ez, torero deitzen zidan ama azpeitiarra du eta– urgazle taldean sartuko haut!". Eta hala, 29 urterako Euskaltzaindiako urgazle nintzen; gazteena izan naiz urteetan. Nik esan izan dut urari gatza botatzen diotenak direla urgazleak... Hitz xelebre horrek laguntzaile esan nahi du, eta horiek bileretara joateko eta euskaltzain oso izateko aukera dute. Ni ez naiz sekula euskaltzain oso izango, munduan azkena naiz ni. Urgazle izateak ez du batere garrantziarik niretzat.

Zuk esana da: "Herri euskaldunetako jendeari beste era batera idaztea tokatzen zaigu. Ez klixez betetako hizkuntza porlanduan, guri belarrian grazi gutxi egiten digun hizkuntza horretan". Nola idatzi behar dute herri euskaldunetako herritarrek?

Jolas asko egin izan dut landua eta porlanduarekin, batua eta artxibatuarekin... Idaztean nabaritu behar da gu euskaraz dezente gehiago hitz egiten den herri batekoak garela, nabaritu behar da hizkuntza hori gutxieneko bizitasunarekin entzuten dugun pertsonak garela. Horregatik, uste dut batek ezin duela idatzi euskara ia entzuten ez duen herri bateko pertsona batek bezala. Ni horretan saiatzen naiz.

Eta helburu hori lortzeko, askotan, ez dituzu arauak errespetatzen. Zergatik?

Euskaltzaindiaren Euskal Hiztegiak esaten du nola idatzi behar diren gauzak, eta arau horiek jarraitzen ditut ehuneko jakin batean, baina ez ehuneko ehunean. Nik *eman ber* idazten dut. Ezin dut horrela idatzi? Zergatik? Adibide gehiago ere jar ditzaket: *haundi* idazten dut, belarriak ez didalako uzten *handi* idazten. Gainera, *haundi* tokatzen zen berez, Bizkaian eta Zuberoan soilik esaten baita *handi*. Eta *nere* hitzarekin gauza bera gertatzen da: *nere* tokatzen zen berez, baina Euskaltzaindiak erabaki zuen *nire* onartzea, hurrengoan ez dakit zer onartzekotan. Euskara zer da hizkuntza bukatu bat? Eta hitz jakinak esanahi jakin batekin soilik erabil al daitezke? Ez. Hizkuntza bizia da euskara, eta batzuek hizkuntza beste era batera landu dugu, ez soilik arau munduari segika. Dena araututa eta "hau horrela da" esatearekin, kontuz.

Batuaren eta euskalkien arteko eztabaida sarritan piztu da aspaldian.

Bai, azken sualdia *Doryan Grayn erretratue* liburuarekin izan zen. Asko sutu nintzen, batez ere, Juan

Ekain
ALBAITARI KLINIKA
AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK

Luis Zabalarekin. Oso minduta sentitu nintzen hark Imanol Azkoitiagatik esandakoekin. Ondorioa garbia da: geuretik, geuk bizi dugun horretatik, hitz egiten dugu, eta batua bai, baina... Denak batu huts horren alde egiten dutenez, nik daukadan kontrako espiritua ateratzen dut. Hori bai, batuan idazten ditut artikuluak eta Euskadi Irratian ere batuan hitz egiten dut, baina listo. Gainerakoan, batuan hitz egingo diot euskaraz justu-justu dakien bati. Euskara askotan espainolarekin eta frantsesarekin konparatzen da, baina bi hizkuntza horiek ez dira munduko hizkuntzen ordezkaritzarik onena. Hiperbatu akademiko hori bada, agian, espainolaren eta frantsesaren kasuan, baina ingelesa, adibidez, beste mundu bat da.

Literaturan-eta euskalkia erabiltzearen aldekoa zara?

Bai, zoragarri iruditzen zait. Jolas moduan ere oso polita iruditzen zait. Aitor Aranaren proiektuaren zatia da *Doryan Grayn erretratue* li-

> “Nire buruari jartzen diodan titulu bakarra filologoa da”

> “Dena araututa eta “hau horrela da” esatearekin, kontuz”

burua, eta eleberria hainbat euskalkitara itzultzea zen haren helburua. Aurreko batean liburu hori oso gustura irakurri zuela esan zidan Jose Ignacio Hualde Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitate irakasleak. Dialektologia asko gustatzen zaio, batuaren alde dago, denok gaude alde gehiago edo gutxiago, eta ikaragarri gustura leitu zuen liburua. Eta hemen, batere errespetu gabe, burla egin zioten egileari. Nire ondorioa da gaztelaniaren aldeko Ciudadanoseko batek euskaragatik hitz egingo lukeen moduan hitz egiten dutela batumanoek herri hizkera bizitu nahi dutenengatik. Gauza bera da: unibertsaltasuna, zabaltasuna, denok ulertzeko... Erabiltzen dituzten eskemak oso antzekoak dira. Eta horrek ukitu egiten nau.

Euskararen aurkako diskurtsoa darabiltenekin parekatzen dituzu?

Ego kontuak daude tartean. Zu ez dakit nongoa baldin bazara, batua bakarrik baldin badakizu eta beste batzuk euskalkian ari badira, grazia egingo dizu edo ez, eta agian ikastea nahiko duzu. Baina zuk auskalo zer zarenaren ustea baldin badaukazu, burla egingo diozu euskalkian ari den horri, zuk kontrolatzen ez duzun zerbait delako eta “hor” ez zaudela pentsatuko duzulako. Eta hori badago.

Batua, ordea, edozein tokitako euskaldunek elkar ulertzeko sortutako hizkuntza estandarra da, izatez.

Alde batetik bai, eta, bestetik, ez. Ondarroarrak dira horren adibide onena: ondarroarrez hitz egiten dute, kartelak hala jartzen dituzte, zineklubean ondarroarrez azpititulatutzen dituzte filmak... Ondarroar batek hala esaten du zenbat hizkuntza dakizkien galdetuta: “Hiru. Ingelesa, euskara eta batua”. Euskara da ondarroarra, eta bestea batua da. Hori da, gutxi gorabehera, esan nahi dudana: “Euskeri hauxe ra, eta gero ra batu”.

Hainbat hitz asmatu duzu, hala nola ‘indernet’, ‘askotasuna’ eta ‘norguaiagoka’. Nor guaiagoka ikusten al duzu gizartea?

Hitz horiek haizeak dakartza, ez du azalpen neurologikorik. Eta bai, denok dakigu gizarte honetan norguaiagoka bizi garela. Agerikoa da.

Hiru liburu argitaratutakoa zara. Azkena, ‘Arrazoia ez dago edukitzerik’, 2012an kaleratu zenuen. Arrazoia edukitzerik ez dagoela uste al duzu?

Arrazoia edukitzearen borroka da dena edo zati handiena, denok nahi dugu-eta arrazoia izatea. Gertatzen dena da arrazoia duenari eman egiten zaiola. Baina baldin badauka, zertarako ematen zaio? Oso kuriosoa da. Punto eta aparte eginda, arrazoia berez ez dago edukitzerik, dabilen gauza bat delako. Berez ez dago, baina gure errealitatea hori da. Ezagutu nuen pertsona batek esan zidan kasik nahiago zuela arrazoirik ez edukitzea, gehiago ikasten zuelako. Guk nahi izaten dugu daukagun uste edo iritzi bat plazaratu eta denek “bai, arrazoia duzu” esatea.

Saiakera liburuak egin dituzu. Zergatik genero hori?

Saiakera? [Barre artean]. Fikzioa, eleberria, ipuina edo poesia ez den guztia da saiakera. Baina nik egindako bat eta Joxe Azurmendiren saiakera bat ezin dira konparatu. Arazo larri bat daukat fikzioarekin, ez dut ez leitzen fikzio libururik eta ez dut ikusten telesailik. Fikzioak indiferente uzten nau; badakit neure bitxikeria bat dela. Igoal, pentsalari kontu horretan ari naiz erortzen, baina argumentu luzeak ez zaizkit gustatzen, gauza laburrak nahiago ditut; zer pentsatua eragiten duten gauzak ikusi edo entzun. Txikitan amak Kukubiltxoren ipuina kontatu zidan, eta pentsatzen nuen ‘hori gertatu al zitzaion Kukubiltxori, e!’. Baina listo, gehiago ez kontatu; niri ez kontatu Kukubiltxo unibertsitatera joan zela edo transexuala zela. Nik nahikoa nuen ipuinarekin. Baina ulertzen dut ederra izango dela telesail baten hiru kapitulu ikustea.

BESTE BATZUK

Neguan itsasoan bainatzen omen zara. Nolatan?

Bikotekideak irakatsi zidan horretan. Duela bi urte hasi nintzen asteaan behin bainatzen. Izugarria da eta mundu guztiari gomendatzen diot. Loarekin aldrebestuta nenbilen bainatzen hasi nintzenean, eta horretan segitzen dut harrezkero. Eguraldi txarra da arazoa, eta Kontxara joan behar izaten dut, aldagela publikoa dagoelako han. Bestalde, goizero ur hotzarekin dutxatzen naiz. Eguneko unerik zailena izaten da, baina bi segundoko kontua da eta berrituta uzten nau.

Gaztetxeko koruko kide ere bazara.

Bai, asteazkenero joaten naiz. Jende dezente joaten gara, Errezildik ere etortzen da jendea. Lehengo Gaztetxean modu periferikoan ibili nintzen, dinamikan ez nintzen sartu, eta, orain, korua tarteko hasi naiz Gaztetxera sarri joaten.

Sakamuturzalea ere bazara, ezta?

Bai, sutsua. Animalismoaren zera horiez asko hitz egin daiteke, eta batzuekin ados nago eta beste batzuekin batere ez. Gerra baldin badator, gerran izango naiz nire armekin, hau da, hitzekin. Sokamuturraren aurkako zeraren bat sortuko balitz, debeku posibleren bat balego, ni aurka izango naiz, garbi.

Guztion borroka

Hilabeteak daramatzate Azpeitian ere pentsio duinen aldeko elkarretaratze jendetsuak egiten. Arrazoiak azaldu, eta gazteei eskua luzatu diete.

Mailo Oiarzabal

Landetatik etorri naiz, oinez. Eguraldiak ez du asko laguntzen, baina etorri beharra zegoen". Hala zioen 80tik gora urteko emakume batek, otsailaren 19 euritsu eta hotz petralean pentsio duinen aldeko elkarretaratzean parte hartu ondoren. Astelehen hartan 200dik gora lagun elkartu ziren herriko plazan. Ez zen aldarri berarekin Azpeitiko pentsiodunak kalera irteten ziren lehen aldia; harrezkero ere, ia astelehenero egin dituzte elkarretaratzeak, zein baino zein jendetsuagoak, eta jarraitzeko asmoa dute.

Horrela azaldu dute, behintzat, Azpeitiko Jubilatuen eta Pentsiodunen Plataformako kide Joxe Mari Iturriak (Errezil, 1945), Miren Odriozolak (Azpeitia, 1944), Arroxa Bordak (Azpeitia, 1945) eta Imanol Agirrek (Azpeitia, 1952). Plataforma hori sortu dute herriko mobilizazioak zuzentzeko, Espainiako Gobernuak aurten ere pentsioen igoera %0,25 izango zela erabaki ondoren Euskal Herrian eta Espainiako estatuan sortu diren protesta mugimenduen harira.

%0,25a baino gehiago

%0,25eko azken igoera hori izan da pentsiodunak sututa kalera bultzatu dituen txinparta, baina "ezinegona lehendik zetorrela" gogoratu du Odriozolak: "Gizarte Segurantzak lege bat zeukan, 8.a, eta dekretuz kendu zuten. Lege horrek esaten zuen KPIaren arabera igo behar zirela pentsioak urtero. 2014an, Espainiako Gobernuan PSOE zegoela, izoztu egin zituzten pentsioak, krisiarengatik. Harrezkero, PPrekin, bosgarren urteaz %0,25 igo dituzte. Beraz, lehendik dator egonezina, jendea gaizki sentitzea. Esaten dute bost urte hauetan, gutxi gorabehera, KPIa ez igotzearekin-eta %6-7 galdu dugula". Lehendik zegoen ezinegon horri "iseka egin izanaren sentsazioa" gehitu zaiola uste du Agirrek aurtengo %0,25arekin, eta horregatik, "jendearen erantzun hau, eztanda hau". Eta iseka sentsazioaren jatorria aletu du Iturriak: "Ari ziren esplikatzen krisiari buelta eman diogula, oso ondo goazela, Espainia berriro indartzen hasi zela, onenak zirela... Eta bitartean, pam, berriz %0,25arekin geratzen zarete zuek. Orduan, jendeak esaten du, 'niri adarra jotzen ari zaizkidak hauek'". Faktore gehiago ere aipatu ditu Odriozolak: "2000. urtera arte, pentsioen kutxan nahikoa diru zegoen. Gero, milioiak eta milioiak atera zituzten hortik bankuak erreskatatzeko eta ez dakit zertarako, eta hasi ziren esaten dirurik ez zegoela eta ez zegoela. Dagoen ustelkeriak ere, harrapatu dituzten milioiek eta milioiek... Horrek guztiak eragina izan duela uste dut, faktore askok egin dutela bat, eta %0,25arena *summum*a izan dela".

Baina Azpeitiko plataformakoek argi azaldu dute beren aldarrikapenak urtez urteko igoeren kopuruaz harago doazela. Pentsioen igoerak gutxienez KPIaren neurrikoak izatea eskatzen dute; are gehiago, Europako Gutun Sozialean aurreikusitakoa kontuan hartuta, gutxieneko pentsioen muga 1.080 eurotan kokatzea. Baina, batik bat, egungo zein etorkizuneko pentsio sistema "publikoa, duina eta justua" bermatuko duen eraldaketa aldarrikatzen dute; pentsio sistema propioa, egun Espainiako Gobernuak dituen eskumenak Hego Euskal Herrira ekarrita, eta politikoez gain, pentsiodunak ere beren pentsioen kudeaketan parte izatea.

Dirua eta borondate politikoa

Pentsioen kutxa hustuta, jakitun dira Azpeitiko plataformakoak lan munduaren egungo egoerarekin eta kotizazio baxuekin ezingo

DEIALDIAK

HILAK 4, AZPEITIAN.
Ostiral arratsaldez. Astelehen eguerdian egin beharrean, ostiral arratsaldean egingo dituzte Alde Zaharrean manifestazioa eta hitzaldia plazan, 19:00etan hasita. Gazteei "dei berezia" eginda, herriko eragileen atxikimenduak ere jaso dituzte.

HILAK 26, HIRIBURUETAN.
Hiriburuetan. Hego Euskal Herriko elkarteek deitu dituzte mobilizazioak egun horretarako. Aurretik, hilaren 5ean, Espainiaek deitutakoak izango dira.

Elkarretaratze jendetsuak egin dituzte azken hilabeteetan pentsiodunek. Irudian, otsailaren 19koa.

dela kutxa hori lehengoratu, baina irmo defendatzen dute badaudela pentsio publikoak bermatzeko formulak, eta horiek aztertzen hasi beharra dagoela. “Beste gauzetarako aurrekontuetatik jartzen da; ba pentsioen kasuan ere ikusi egin beharko da nola osatzen den. Europako herrialde askotan pentsioen zati bat gizarte segurantzatik eta beste bat aurrekontuetatik jartzen dute. Helburua da pentsioen sistema publiko on bat bermatzea”, dio Odriozolak. “Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridikoek aztertu dute, eta aukera eta formula ezberdinak daude bideragarri izateko. Dirua badago, falta zaiguna da borondate politikoa”, gaineratu du Bordak.

Pentsioa legeek jasotako “eskubide bat dela, ez kapritxoa” gogoraraztea beharrezko ikusten dute. “Oraindik badago jendea ez dakiena eskubide bat dela, ez dela opari bat. Espainiako Konstituzioaren 50. artikuluan dator hori: pentsio duin bat, bai kotizatu dutenentzat, bai kotizatu ez dutenentzat, guztientzat”, azpimarratu du Odriozolak. “Uneanunean egokitzen den gobernuaren esku egotea, eman ala ez eman... Haren limosna bat al da ba? Hari kapritxoa emandakoan eman, eta kapritxoa emandakoan kendu?”, galdetu du Agirrek.

Behin eta berriz nabarmendu dute eskubide horren defentsa gizarte osoaren kontua dela.

Gazteei deia

Herriko jubilatuen erantzunarekin pozik daude. Orain arte antzeko edo bestelako mobilizazioetan inoiz parte hartu gabeko pertsona askok egin dute bat pentsio duinen aldarriekin. Mugimenduaren aniztasuna “oso garrantzitsua” dela uste dute plataformakoek.

Pentsioen aldeko borroka, baina, “denona” izan behar dela errepikatzen dute, etorkizunekoak ere jokoan daudelako. Gazteak eta egun lanean ari direnak mobilizatzea ezinbestekoa iruditzen zaie. Autokritikatik abiatu da Agirre: “Gutxiegi insistitu dugula uste dut geuk ere, gazteen etorkizunarekin edo etorkizuneko pentsioekin”. Iturriak, berriz, borroka ezberdinak uztartzearen beharra azpimarratu du: “Borroka ez da bakarrik pentsioengatik egin behar. Langileak borrokatu beharra dauka soldata duinengatik; eta soldata duinak ezin dira 1.200 eurotik behera egon. Hortik behera ja pobrezia da. Langile batek lan egiten du, eta pobrea da; hori izan litekeen tristeena da. Beraz, kontzientzia hori piztu behar dugu gazteen eta lanean ari direnen artean: ez dela gure borroka bakarrik, denona dela”. ‘Gurea’ esaten dutenean, jubilatuez bakarrik ez direla ari gehitu nahi du Bordak: “Jendeak pentsatzen du pentsioak ile zuriz betetako zahar-zaharren kontua direla, baina alarguna tokatu liteke, hiru umerekin, bihar. Eta hori ere bada guk defendatzen duguna”.

Langileen eta pentsiodunen borroken bateragarritasuna irudikatzea eta indartzea izan da, hain zuzen ere, hilaren 4rako –aldizkari hau banatzen hasiko den eguna– deitu duten mobilizazioaren arrazoi nagusia. “Biktimismotik urruntzea nahi dugu. Ez da gaizki dauden aitona-amonei laguntzeagatik. Hori ere bada, noski, baina batik bat da justizia sozialagatik, eskubideen defentsagatik”, berretsi du Agirrek. “Bai, ze batzuk esango dute: ‘Nik dudan soldata baino pentsio hobea zeukak nire aitak’, hori ere gertatzen ari delako. Baina jendeak enplegu duinak izan ditzan ere ari gara gu borrokan”, gaineratu du Odriozolak.

PPk aurten eta 2019an pentsio guztiak %1,6 igotzea onartu zuen apirilaren 25ean, EAJk proposatuta, jeltzaleek Espainiako aurrekontuen tramitazioak aurrera egitea baimentzearen truke. Horrek pentsiodunen mobilizazioetan zer eragin izango duen ikusteko dago, baina Azpeitian, behintzat, ez daude gelditzekotan. “Kalean zenbat eta jende gehiago egon, parlamentuetan horren arabera mugitzen dira”, dio Bordak.

Emakumeak

Lan munduan soldata arrakalarekin bezala, pentsiodunen artean ere egoera okerrenean daudenen artean gehiagoa emakumeak dira.

Azpeitiko Udalak 80 urtetik gorako herritarren egoera ezagutzeko egindako azterketan, emakume alargunei zuten pentsioarekin nola moldatzen diren galdetuta, %45 ziren zailtasunen bat aipatzen zutenak: %55ek erantzun zuten ondo moldatzen zirela; %32,8k zailtasunak zituztela aitortu zuten; %8,2k, oso larri iristen zirela; eta %3,3k, ez zitzailea hilabetea osatzeko iristen.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako pentsiodunei dagokienez, berriz, %58k kobratzen dute hilean 1.100 euro baino gutxiago; kopuru horren azpitik kobratzen dutenen %70 emakumeak dira; eta emakumeen %70 horretatik, %78k 600 euro baino gutxiago kobratzen dute.

Agiritik agirira

ramon etxezarreta

Irakurleak sumatuko du lerro hauek iraganean idatziak direla, ez oso aspaldi. ETA bizirik zela artean, gure artean ibilbide luzea egin duen erakunde terroristak bere burua deuseztatzen duela iragarri aurretik. Aldiz, badakit irakurleak euskal erakunde armaturik ez dagoen garaietan irakurriko dituela. Bien bitartean, despedida zeremoniek luze jo dute taldeak horretarako beharrezkotzat jo duen orgia mediatikoan, inoiz galdu duela aitortu ezin duenaren azken, benetan izango ote da azkena, garaipen gisa ospatzeko imintziotan.

Paperik paper, agiriz agiri, funtzioz funtzio, luzatu da agonia. Independentzia negoziatzea eta erreforma guztiak, erreforma izateagatik ez bestegatik, ezabatzea helburutzat zuen erakundea, estatu asmoko erakundetzea helburu duen oinordekotza politikoa izendatuz doa, gure bizitzetatik oroimenerako ihesa egiten. Erabaki horretarako arrazoiez gaurdaino jabetu ez izana harrigarri egiten bada, harrigarriago egiten da jabetuta zeudela eta ez zutela aitortu nahi pentsatze hutsa.

Agur behin betirakoa formulatu aurretik bere ibilbide historikoan eragin duen kaltea adierazi du, gehiegizko sufrikarioaren eta bizitako saminaren ardurak onartuz, inoiz gertatu behar ez zuena gertatu zela eta luzeegi jo duela adieraziz. Pozak, bake beharrak, gogoak, nahiak, komenientziak edo aurrera egiteko bultzada beharrak eraman gaitu aurrera pauso izan daitekeen hau tupustean eta gehiegi pentsatu behar izan gabe onartzera. Izan ere, nobedadea da talde armatuaren hizkera berri hori.

Ez daki batek etorkizunak zer balio emango dien hitz hauei, baina esango nuke hobe zuketela gure historiaren irakurketa lasaiago eta zentzuzkoago bat eginez jardutea. Hobe zuketela Gernikatik bizirik iraun diguten duintasuna eta memoria zikindu eta odoleztatu izanaren barkazio eskaera ondradu bat egitea, haietan duintasun ezari habi bat egiten saiatzea baino. Zer zekena den barkamena eskatzen hasita inolako erantzukizunik ez zuten hainbat herritarri eta haien senideei, ez besteri, egitea.

> Beste etorkizun bat nahiko nuke, historia hainbeste faltsutuko ez duela, zigorrak kendu eta kulpa ahaztuko ez duena

Beste etorkizun bat

Eragindako kalte horrek onartzen al du irakurketa partzialik edo lokalik? Zein litzateke, adibidez, Azpeitian eragindako kaltea? Egon al da Azpeitian inolako erantzukizunik gabeko herritarrik? Edo inolako erantzukizuna zutenik eta barkamen eskaerarik merezi ez duenik? Azpeitian asesinatutako guztiek, batzuek, edo inork, merezi al zuten heriotzarik? Indarkeriapean makurtuta bizitzerik?

Beste etorkizun bat nahiko nuke, historia hainbeste faltsutuko ez duena, zigorrak kendu eta kulpa ahaztuko ez duena, estatuaren baitatik eragindako biolentzien ardurak beregain izango dituena, “ja ez naiz biktima” lasai esateko aukera eskainiko didana, zintzotasuna jokoko arau izango duena, urkoa ez baztertu eta ez menpean hartuko duena.

Udaberrian

OPARI TXARTELAK

40€ rekin 50€

Bonoen salmenta Ordutegia: 09:00etatik 13:30era eta 14:30etik 17:00etara

Maiatzaren 2tik aurrera
Bertan Merkatari Elkartearen bulegoan (Enparan kalea, 1-1. solairua)

Maiatzaren 7an eta 8an	Maiatzaren 9an eta 10ean	Maiatzaren 11n eta 14an
Azoka Plazan	Betharrametako erakusketa aretoan	Sanjuandegiko auzo-lokalean

Salmentara aterako diren 300 bonoak agortu arte / Erabiltzeko epea: ekainaren 30a

Xabi Solano, Nuarben

Maiatzeko azken asteburuarekin etorriko dira aurten Trinidade festak. 26an, estreinako egunean, kontzertua emango du Solanok. Aratzerrekan, 12an eta 15ean izango dira sanisidroak. ✎ **Mailo Oiarzabal**

Auzo txikian, festa handiak" esaldia trinidadeen ikur bihurtu du azken urteotan Nuarbeko Festa Batzordeak, eta aurtengoan ere esaldiari ohore egitekotan dira.

Elizaren egutegiaren arabera aldatzen dira urtetik urtera Trinidade jaien datak. Aurten, maiatzaren azken asteburuarekin iritsiko dira. Hilaren 26an, 27an eta 28an ospatuko dituzte 2018ko trinidadeak Nuarben. Festa egitarau osoaren berri ez dute eman oraindik, baina iragarri dute apirilaren erdi aldera sare sozialetan agindutako "sorpresa": Xabi Solano trikitilari ezagunak festen lehen gauean emango duen kontzertua.

1990eko hamarkadan Etzakit taldearekin hasi zenetik, euskal musikari ezagunenetakoa da Xabi Solano. 2007tik Esne Beltza taldearen buru eta abeslari, bakarko lanak ere ez ditu alde batera utzi, beti soinu txikiari lotuta. 2016an argitaratu zuen *Ereñotzu* diskoa, eta azkenaldian, *Inpernuko* ikuskizunean murgilduta ibili da.

Solanoren kontzertua borobiltzeko, Elizagoien ahizpen erromeriak hartuko du Ereñotzuko musikariaren lekukoa trinidadeen lehen gauean.

Sanisidroak ere bai

Maiatzarekin urtero datozenak Aratzerrekako festak dira. Aurten, ohi baino laburragoak izango dira sanisidroak Aratzerrekan, baina ospatu gabe ez dira, ez, geldituko.

Hilaren 12an, zapatuan, hasiko dira festak. Atxur Festa ospatuko dute aurten ere egun horretan, mendi bueltarekin, atxurraren igoerarekin, umeentzako jolasekin eta zezen txikiekin. Gauean, berriz, jan-edana eta musika ez dira falta-ko tabernan. Hilaren 15ean, asteartea, San Isidro egunarekin bukatuko dira festak.

DATUAK

Zer. Xabi Solano Maizaren kontzertua eta Elizagoien ahizpen erromeria (trinidadeak). **Eguna.** Maiatzaren 26a, zapatua. **Ordua.** 23:00. **Tokia.** Nuarbe **Antolatzailea.** Nuarbeko Festa Batzordea.

DATUAK

13 **urterekin** hasi zen trikiti txapelketetan parte hartzen Solano.

15 **urterekin** Munduko Txapelketa irabazi zuen, Italian.

Xabi Solano Maiza. **Montecruz Foto**

BESTERIK

1 Badator Sare Eguna

Presoen eskubideen aldarria eta festa giroa uztartuko dituen Sare Eguna antolatu du Azpeitiko Sarek hilaren hirugarren zapaturako. 'Erantzi motxilak, egin jauzi!' leloarekin, presoen urrunketak adin-txikikoengan duen eragina gizarteratu nahi dute.

Eguna. Maiatzak 19 (zapatua). **Ordua.** Egun osoz. **Antolatzailea.** Azpeitiko Sare Herritarra.

2 Kurt Diemberger

Mendizale austriarrak dokumentala aurkeztuko du, Alex Txikonen laguntzarekin.

Eguna. Maiatzak 17 (osteguna). **Ordua.** 21:30. **Tokia.** Soreasu antzokia. **Antolatzaileak.** Lagun Onak MB eta Kulturaz kooperatiba.

3 Vendettaren agurrekoa

Vendetta musika taldea uztera doa eta agurreko biran murgilduta dabil. Azpeitian ere egingo dute azken geldialdi bat.

Eguna. Maiatzak 12 (zapatua). **Ordua.** 23:00. **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Saibe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut: 943 81 57 81

AIZPURU AUTOAK

HEZKUNTZA ERALDATZEN

- Hezkuntza eredu propioa
- Euskalduna
- Herritarra
- Eraldatzailea

BATXILERGOKO AURREMATRIKULA
maiatzak 2tik 14ra

azpeitiko ikastola
ikaaberri koop.e.

Loiolako hiribidea 26, 20730 Azpeitia • **Tel.: 943 15 12 46**
www.azpeitikoikastola.eus

ZATOZ GU EZAGUTZERA!
Eskatu hitzordua

IMH FABRIKAZIOAREN ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO DE FABRICACIÓN

Fp EUSKADI

HEZIKETA ZIKLOAK

Informazio saioa:
Maiatzak 26 11:00etan
Baieztatzeak: 943748265 www.imh.eus
amaia@imh.eus

IMH INGENIARITZA DUALAREN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE INGENIERÍA DUAL

Universidad País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO EBAKITASUN CAMPUSA

INGENIARITZA GRADU DUALA

Informazio saioa:
Maiatzak 26 11:00etan
Baieztatzeak: 943748264 www.imh.eus
ingeniaritza.ehu@imh.eus

HITZ GEZIDUNAK

Egilea: Luma

	Baita / Oztopo		Diosal hitzak / Beharbada		Ezkion jaioa / Lotsagabe		* Deitura / Emakume izena	Emakume izena
	* Izena / Itsas-lapurra							
Lehortea / Txori mota		Fosforoa / Automata		PI., IX. hilabetea / Gauza				
								Bokala / Jarri
Liburu sakratua / Mandio					Garraio mota / Prezipita-zio mota			
			Suari dariona / Sobera				Selenioa / Egoskin mota	
... egina, mozkortuta / Aukera				365 egun / Oinarrizko edari				Kanpo, landa
			Aitzina / Bokal mehea					
Bokal errepika-tua		Barrea					Idi, hitz elkar-tzeetan	

* Futbolari azpeitiarra

SUDOKUA

		8	7	3		6	5	9
					6	1		
							4	
1			8					2
	8						6	
4					2			7
	5							
		9	1					
8	1	3		9	5	4		

UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK

JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Maiatzak22 (asteartea) **NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara **IRABAZLEARI SARIA.** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta **PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jeroglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.

1

2

LEHIAKETAREN ERANTZUNAK

1 BOTERE HITZAREN SINONIMOA

2 ZER IZAN NAHI DU?

BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK



SUDOKUA

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Kuloteak

2 Atez atekoa

UZTARRIAREN APIRILEKO LEHIAKETA

IRABAZLEA

Mirari Larrañaga Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 204. lehiaketaren irabazlea. Kutxillourdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

GUTUNA

Mertxe Otaegi

Azken hatsa eman du Nuarben emakume handi eta maitagarri batek, Mertxek. Mertxe Otaegik. Emakume adoretsua izateaz gain, ama bat eta izeba handi bat izan da. Askok ezagutu dugu Mertxe, eta jakin badakigu azken urte hauek ez direla errazak izan ez berarentzat, ezta bere sendiarentzat ere. Izan ere, gaixotasun larri batek etxean loturik izan du. Gogorra izan da amaiera, eta orain, atsedena hartu du.

Mertxe Otaegiz gauza asko idatz eta esan daitezke, baina nik bat aipatu nahi nuke: zein duina izan den bere ibilbidea. Egunsenti krudel batek ekarri zion inoiz espero ez zuen berria. Burgosko pareta batean bere abizena bortitz oihukatu zutenean militarrek: Otaegi! Eta ondoren tiroak. Bere ahizpa Mariaren semea zen Angel Otaegi, eta heriotza injustu hark markatu zuen, tamalez, bere eta gure herriaren historia.

Putreek beren hegoak zabaldu zituzten, eta barkamenik jaso gabe, justizia gabe eta aitortza gabe, Otaegitarrak zokoratzen saiatu ziren. Baina emakume adoretsu honen eta bere sendia-

Beste bizitza bat merezi zuen Mertxek, askoz ere bizitza goxoagoa

ren aurrean galdu egin dute. Ez zen erraza, baina zorionez Mertxek eta bere senideek gorrotoari maitasunez erantzunda egin dute aurrera. Ez da batere erraza izaten heriotzaren inguruan eraikitzea, baina oroimena eta justizia etengabe eskatuz argia ekarri zuen pixkanaka negu gogorrean. Tristea da heriotza batek bizitza markatzea. Horregatik, ziurrenik, beste bizitzabat merezi zuen Mertxek, askoz ere bizitza goxoagoa. Baina tokatzen zaigun bizitzaren aurrean dugun jarrera izaten da beti garrantzitsuena. Pazientzia behar da, baina ez dezagun ahaztu denborak dena bere lekuan jartzen duela.

Horregatik, Mertxe duina izan zen oso. Bizitza osoan. Bere bideak gogorrak, baina aldi berean goxoak izan ziren, sentitzen den maitasunaren bideak izan baitziren bereak. Ez da bizitza erraza izan Mertxerena, baina gu guztion errespetua eta aitortza irabazi ditu.

Esango bagenizu, Mertxe, egunsentiak guri ere beldurra ematen digula. Eta guk ere sumatzen dugula iluntzearen ostean iluntze luzeena etorriko dela. Ez gaitzazu bakarrik utzi, gure maitea, ez gaitzazu bakarrik utzi inoiz egunsentian; zuk ez zenuen inor bakarrik utzi egunsentia iritsi zenean, eta guk ere ez zaitugu inoiz bakarrik utziko. Gu garen bitartean zu ere ez zara inoiz bakarrik izango. Oroimena dugun bitartean azalduko dugu Nuarben duintasuna ikas daitekeela, eta gure artean izango zarela egunsentietan.

eneko etxeberria

EFEMERIDEAK

1620

Loiolako Inazio. Zumaian ospatu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak, eta Loiolako Inazio Gipuzkoako patroitzat hartzea erabaki zuten .

1735

Baserritarrak preso. Otea denbora baino lehen ebaki zutelako preso zeuden baserritar batzuk, alkateak aginduta. 30 errealeko isuna ezartzea erabaki zuten.

1839

Pentsionistak. Herriko pentsionisten zerrenda egin zuten. 53 biztanlek osatzen zuten zerrenda.

2012

Mikel Aranburu. Futbola uzten zuela jakinarazi zuen, Realaren talde nagusian 14 denboraldi egin ondoren.

✎ **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar* liburua.
Egilea: Imanol Elias Odriozola.
Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.

Pisu kontuak

Behar bada, pisua galtzeko nahiarekin zabiltza aspalditxon, eta saiatu arren, ez duzu emaitzik lortzen. Sabeleko 'txitxia' horiek kentzea ezinezkoa dela eta, zeure buruari zergatik ote den galdetzen diozu.

Horrelakoetan, aukera errazenaren bila hasten gara. Hainbestetan telebistan ikusi dugun osagarri miragarri hori probatzea falta ote zait? Edo fruta gehiegi jaten dut, eta horrena da errua? Errudunak bilatu beharrean, arazoaren konponbidea eguneroko gauza txikietan egon daiteke. Adibidez, azkar jateak urdailak garunari bidaltzen dizkion asetasunaren hormonen seinaleak denboraz ez jasotzea dakar, eta ondorioz, gehiago jatea eragin dezake. Beraz, polikiago janda, errazago beteko zara eta gutxiago jango duzu.

Estres kronikoak, lotarako arazoek eta atseden faltak alertan jartzen dituzte hormonak, eta horrek pisua hartzen lagundu edo pisua galtzea oztopa dezake. Bestalde, askotan entzuten ditut "noiz behinka" hitzak. "Noiz behinka ardotxo batzuk hartzen ditut", "noiz behinka opilak jaten ditut" edo "noiz behinka gozoa jaten dut". Ez ote dira "noiz behinka" gehiegi?

Irtenbideetako bat egunero nahikoa barazki jatea da. Pisuz jaitsi nahi baduzu, menuak dentsitate energetiko baxua eta dentsitate nutrizional handia izan behar ditu.

Ondo jan, eta ondo izan!

aitziber aizpuru

LOURDES ALBERDI mertzeriako saltzailea

1. Gehien saltzen dena?
Emakumeen barruko arropa.

2. Eta gutxien?
Umeen arropa.

3. Modan dago?
Enkajezko barruko arropa.

4. Zuria edo beltza?
Beltza.

5. Kanpokoa adina zaintzen al da barruko arropa?
Ez. Dena den, udan gehiago zaintzen da.

6. Bitxikeriarik?
Gizon batek emakumeen barruko arropa probatu nahi izan zuen.

7. Lan gehien, noiz?
Gabonetan eta San Inazio jaien aurretik.

8. Ohiko oparia?
Pijama.

9. Herrian erosten al dute herritarrek?
Helduek, batez ere.

✎ **Elena Margüello**

Xabier margoak
Pinturak eta Parket Laminatuak
Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermargoak.com

IRENE ALTUNA
Loiola Bide, 26 Tel. 943 81 51 87

Alar merzeria
Loiolako auzo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

Koh Tao
OSAGARRIAK

uba

ostadar optika
OPTIKARI - OPTOMETRISTAK
AZPEITIA
AZKOITIA

KIRUKI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnoa.: 943 81 [illegible]
Faxa.: 943 15 03 82

ARTE ETA OFIZIO ESKOLA ARKARTEA
Marrazkia eta eskulanak
(haurrak) 17:15 - 18:30
Pintura 15:30 - 17:00
(helduak) 18:30 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00

Senideren edo gertukoren baten heriotzaren unean, askorentzat ez dira izaten hilerriak lur emateko leku aproposenak. Gero eta gehiagok aukeratzen dute mendia edo itsasoa joan direnen errautsak zabaltzeko eta betiko atsedenerako leku gisa. Era berean, urteetan indar handia hartuz joan den ohitura izan da hildakoei eskainitako oroigarriak eta gurutzeak inguruko mendietan jartzea. Leku gehienetan arautu gabeko arazoa da ingurune naturaletan ikurrak ezartzearen usadioa, eta zenbait menditan izugarri daude; hilerri itxura hartzeraino.

Hernioko gurutze festa, esaterako, "gehiegikeria bat" zen Lagun Onak Mendi Bazkunako lehendakari Aitor Unanueren esanetan, eta mendietan ikurrak jartzearen aferak "nahikoa zeresan sortu" du. Duela bost urte, 30 gurutzetik gora zeuden Hernion, eta han lurrak dituzten zortzi herritako udal ordezkariek eta Erniozaleen elkarteko kideek erabaki zuten hildakoak oroitzeko oroigarriak galaraztea eta ordura arte jarritakoak kentzea. Unanueren aburuz, "errautsak zabaltzeak ez" bezala, bestelako oroigarriak ezartzeak "kalte bisuala" eragiten du, eta gaineratu du elkartearen filosofia dela mendiak "garbi" mantentzea: "Ikurrei dagokienez, lehen daudenak errespetatzen ditugu, baina ez gara oroigarri berriak jartzearen aldekoak".

Izarraitz hizpide, lehendakariak adierazi du 1992an, hiru azpeitiar hil zirela bi asteren barruan, eta ikurrak gehitzeko "kezka nagusitu"

Ezkerretik eskuinera, Axentxio Areizaga, Joxe Mari Gorrotxategi eta Joxe Antonio Salegi, Azketako iturrian.

Esentzia galdu gabe

Mendiko ikurrek zein hildakoen omenez jarritakoek "hautsak harrotu" dituzte. Guztiek gauza bera nahi dute: mendiaren irudia "errespetatzea".

✎ Ainitze Agirrezabala

Ihintza Elustondo

zela elkartean. Epe luzera, oroigarrien afera "arazo" bihur zitekeela jabetu ondoren, garai hartako udal gobernuak eta Lagun Onak Mendi Bazkunak adostu zuten Xoxote gailurretik gertu harri bat jartzea, "mendian bizia utzi zuten azpeitiarren omenez".

Nepalgo banderatxoak, Hernion

Duela bost urte, Benantxio Irureta mendizalea hil zen istripuz Aneton, eta haren errautsak Hernion zabaldu zituzten senideek, "Benantxiok bizitzan gehien bisitatu zuen mendian". Iruretaren arreba Milaren esanetan, mendian gurutzeak eta plakak jartzearen "zalea ez" zen anaia. "Lehendik zeudenak errespetatzen zituen, baina mendia garbi mantentzearen aldekoa zen. Egia esan, ez zitzaigun burutik pasatu ere egin anaiaren omenez ikurren bat jartzea". Alabaina, anaia galdu eta urtebetera, Mila ez zen esku hutsik joan Herniora: "Nepalera sarri joan zen Benantxio, eta espedizio aurretik mendiari baimena eta jainkoari babesa eskatzeko koloretako banderatxoak zabaltzeko ohitura dute han. Bidaiero ekartzen zituen anaiak banderatxoak. Agian, ez dira guztien gustuko izango, baina sentipena dut bere omenez Hernion zintzilikatu ditugun apaingarriek poz emango lioketela".

Mendian "egun zoriontsu asko" igaro arren, "une garratzak" bizitzea ere egokitu zitzaion Benantxio Iruretari. 2001ean, Pumori gailurra egin nahian zebiltzala, Beñat Arrue azpeitiarra eta Iñaki Aiertza aizarnazabaldarra –beste hiru nafarrekin– hil ziren. Mila Iruretak kontatu du Pumorin bizia galdutako bost lagunen izenak zizelkatuta dituen "harri txiki" bat jarri zuela Benantxiok Txindokin. "Haitzarte batean dago, erdi ezkutuan, eta anaiaren aburuz, ez du mendiaren edertasuna hausten edo kutsatzen". Benantxio Iruretaren omenez, haren motxila "kutunena" irudikatzen duen harrizko eskultura "txiki bat" jarri zuten mendizale zenaren hainbat lagunek, Aneton. "Morrena batean kamuflatuta dago –dio Mila Iruretak–, eta aurkitzeko beharrezkoa da koordenatu geografikoa jakitea. Halere, ez dugu uste halako oroigarriek kalte bisualik eragiten dutenik".

Sinbolo zaharrei "errespetua"

"Zenbat buru, hainbat aburu", dio esaerak, eta Joxe Antonio Salegi eta Joxe Mari Gorrotxategi Izarraizko baserritarrek eskatzen dutena da mendian dauden irudi eta sinbolo zaharrak "errespetatzea". Izan ere, 2014ko maiatzean, Xoxoteko gurutzea desagertu

Iruretaren omenezko motxila, Aneton. M. Irureta

zen; Urte Zahar egunean, berriz, Erlokoa; eta 2016ko azaroan, Azketako iturriko Jesusen Bihotzaren irudia kendu zuten. Salegik eta Gorrotxategik azaldu dutenez, "betidanik ezagutu" dituzte ikur horiek mendian, eta haiek kentzeak "herritar asko mindu" du. Gorrotxategik dio mendizale asko "arduratu" dela horiek zaintzeaz urte luzez, Joxe Urbieta *Takolo* esaterako, eta, beraz, "errespetua eskatzen" dute. Era berean, Salegik gaineratu du mendian jendeak "nahieran" gurutzeak eta plakak jartzea "begi onez ez" duela ikusten, eta "erregulatu beharreko kontua" dela, Hernioko "desmasia" ez gertatzeko.

Hiru sinbolo zaharren desagerpenen aurrean, ordea, Gorrotxategik adierazi du "Udalari gurutzeak berriz jartzea eskatzeko" sinadura bilketa egin zutela: "Udalak, ordea, ez zigun erantzun garbirik eman, eta azkenean, geu arduratu ginen Olalde errementariarekin hitz egin eta bi gurutzeak jartzeaz. 1.400 euro kostatu zitzaizkigun bi ikurrak, eta Udalari eman genion faktura". Azketako iturritik desagertu zen irudiaren kasuan ere, "Udalaren eskumena" izanik, hari eskatu zioten beste bat jartzeko. Baserritarrak, ordea, kexu dira, Udalak ez duelako "ezer" jarri: "Garbi duguna da gurutzeekin hartu genuen lana eta ardura ez ditugula hartuko beste behin".

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKOA (ITE)
JON ESNAOLA
ARKITEKTO TEKNIKOA
M: (+34) 647 654 506
T: (+34) 943 15 7000
E: info@jonesnaola.eus
www.jonesnaola.eus

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89001 7
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Maiatzaren 30ean izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

FARMAZIAK (MAIATZA)

1-10-17-24-29
Arrieta (Azpeitia).
943-811274

2-9-14-19-20-25-31
Beristain (Azpeitia).
943-811949

3-8-15-22-26-27
Alberdi (Azpeitia).
943-815974

4-7-12-13-18-21-28
Aranburu (Azpeitia).
943-811350

5-6-11-16-23-30
Jacome (Azpeitia).
943-080258

GAUEZ, URTE OSOAN
Alberdi (Azpeitia).
943-815974

ORDUTEGIAK

UDALETXEA Asteguna: 08:30-14:00 Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** Astelehena: 14:00-21:00 Beste egunak: 07:00-21:00 Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 Kanpokoa: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** Astegunak: 10:00-13:00,15:00-21:00 Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 Larunbata: 09:00-13:00 Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. **GAZTELEKUA** Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI

LURRUN TRENA.

Trenaren Euskal Museoa Fundazioak lurrun trenaren zerbitzua eskainiko du zapatuetan 12:30ean eta 18:00etan, eta igandeetan nahiz jai egunetan 12:30ean. Bisita gidatuak egiteko aukera ere bada.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 2587
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/autobusak

ANDER AGIRREZABALA

Praga, Txekiar Errepublika

“Harro sentitzen naiz orain arte lortu dudanarekin”

Amazonek Pragan duen egoitzan egiten du lan azpeitiarrak. Profesionalki nahiz pertsonalki “hazten” lagundu dion esperientzia ari da bizitzen. ✎**Elena Margüello**

Zer dela-eta zaude Pragan?
Pragan baino lehen Maltan bizi izan nintzen. Banekien Global Training izeneko programa bat zegoela, eta 2016ko udan bertan parte hartzea erabaki nuen. Curriculuma bidali nuen, eta azterketa batzuk egin ostean, bi aukera eman zizkidaten: Eskozia edo Praga. Azken hori aukeratu nuen, eta bertako enpresa txiki batean praktikak egin nituen sei hilabetez.

Orain Amazonen egiten duzu lan. Zein da zure egitekoa?
Pisukide batek Amazoneko giza baliabideen kudeaketan egiten zuen lan, eta praktikak egiten ari nintzen bitartean nire buruari bertan lan egiteko helburua jarri nion. Orain, Britainia Handiko langileen lan absentzia kontrolatzen dugu taldekook. Langileen jarraipena egiten dugu, eta absentzia motaren arabera, erabaki eta neurri desberdinak hartzen ditugu.

Ondo egokitu al zara euskara ez den beste hizkuntza batean hitz egitera?
Bai. Ingelesez aritzen naiz. Maltan nengoela ikasi nuen ingelesarekin eroso sentitzen. Italiera ikasten ere hasi naiz, eta urrian frantsesa ikasten hasteko asmoa dut.

Zerekin egin duzu topo Pragan?
Profesionalki, etorkizunerako ditudan planak betetzeko bultzada emango didan enpresa bat topatu dut. Harro sentitzen naiz orain arte lortu dudanarekin. Izan ere, profesionalki egin dudan bideak pertsonalki hazten lagundu dit.

Nolakoa da hango jendea?
Neguan hotz handia egiten du, eta jendea ere eguraldia bezalakoa da, hotza. Hala ere, askotariko pertsonak aurkitzen ari naiz, eta hiriburua oso polita da.

Zer gustatu zaizu gehien?
Jende asko ari naiz ezagutzen, eta asko gustatzen zait horiekin esperientziak partekatzea; gustura entzuten ditut besteen bizipenak. Bestalde, egunerokoan ingelesez hitz egin ahal izatea ere asko gustatzen zait.

Azpititik zer sumatzen duzu faltan?
Familia eta lagunak. Hala ere, niretzat garrantzitsua den jendearekin kontaktuan nago beti. Euskal Herrian dugun janaria eta itsasoa ikustea eta usaintzea ere faltan sumatzen ditut. Baina jada ohitu naiz.


1

2


3

1. Agirrezabala Amazonen bulegoan, lanean. 2. Agirrezabala Palestinara egin berri duen bidaian. 3. Azpeitiarra Pragan.

1.484 kilometrora dago Praga.

Lehen mendi igoera

miel a. elustondo

Petrarcak bigarren mailako ditu begieste hutsaren plazerak, plazer alferrikakoak, berak dioenez

Han non dioen San Agustinek *Aitorkizunak* liburuan: "Joaten dira gizonak mendi gailurrak eta itsasoko olatu erraldoiak mirestera, ibaien ibilbide luzeak eta itsasoaren zabaltasuna eta izarren orbitak mirestera, eta beren buruaz ahazten dira". Munduko edertasuna, batetik; norberaren barrukoa, bestetik. San Agustinek ez du gorputzeko zentzumenen inperioa nahi; zentzumena, barnekoa nahi luke. Argitasuna, fedea. San Agustinen testuek izugarri agindu zuten Elizaren dotrinan. Barneko argitasunak zeharo ukatu zuen zentzumenen atsegina Erdi Aro osoan. Aro ilun hura. Asko izan ziren, noski, fedearen argitasunetik aparte ibili zirenak. Jakin-minez, gutiziaz, lizunkeriaz, munduko plazer iragankorrez gozatu ziren. Gorputzeko zentzumenek ematen duten gozamenetik datorren bekatuan erori ziren. Horietariko bat izan zen Francesco Petrarca.

1336ko apirilaren 26ko gauean, gutuna idatzi zuen. Bertan, garai hartarako, gauza guztiz harrigarria deskribatzen du: nola igo zen, bere anaia Gerardo eta zerbitzari batzuk lagun zituela, Ventoux (Haizetsu) mendira, Frantzian hego-ekialdeko Proventzako tontorra. Gailurrera iritsi eta ikusten eta sentitzen dituenak agertzen ditu Petrarcak. "Lehenik, airearen halako ohi ez bezalako sotiltasun batek, eta ikuspegi haren zabaltasunak eraginik, ergeldurik bezala geratu nintzen. Begiratzen dut atzera: hodeiak gure oinez behetik zeuden. (...) Begiratzen dut orduan Italiako aldera...". Antzeko gauzarik ez zen Mendebaldean idatzi Plinio Gaztearen garaiaz gero.

Munduaren gaineko begirada

Petrarcak munduaren gaineko begiradak ematen duen plazerra berraurkitu du. "...ikusteko asmoa ekarri nuen guztia ikusteko, biratzen naiz eta begiratzen dut sartalderantz. Pirinioetako gailurrak, Frantziaren eta Espainiaren arteko muga, ez dira ikusten handik, ez, ordea, bitartean inolako oztoporik tartekatzen delako, hilkor garenon ikusmenaren ahuleziagatik baizik".

Ventoux gailurrean dagoenean, gorabehera geografikoak aztertuta, panoramari ondo begiratuta, asebeteta dagoenean, Petrarcak oso maite duen liburua hartzen du: San Agustinen *Aitorkizunak*. Zabaltzen du edozein lekutan, eta irakurtzen du: "Eta gizakiek mendien altuera, itsasoaren nahasmen izugarria, ibaien zabalera, ozeanoaren handitasuna eta argizagien ibilaldia mirestera joaten dira, eta beren buruaz ahazten dira". Hitz horien aurrean, Petrarca txundituta geratzen da, liburua ixten du, eta ondoren idatzi zuenez: "Mendi hura aski ikusia nintzela iritzirik, neure baitara bildu nituen barreneko begiak".

Petrarca. San Agustinen jarraitzaile zintzoa. Bertutea eta aintza, nolakotasun moralari lehentasuna emateko borondatea du. Bigarren mailako ditu begieste hutsaren plazerak, plazer alferrikakoak, berak dioenez. Francesco Petrarca.1336ko apirilak 26. Ventoux mendirako igoaldia.

IRAURGI

ikastetxea

Ikasturteko matrikulazio egunak:

Maiatzaren 2tik 14ra

Ese Alai 18 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Tell. 943 810210

iraurgi@iraurgi.com

www.iraurgi.eus

Meka

Lanbide Eskola

Formakuntza Eskaintza

2018 - 2019

Ate Irekiak Maiatzak 11

ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Menpekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

Meka

Lanbide Eskola

Ate Irekiak Maiatzak 11

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Soldadura eta Galdaragintza
- Automozioa
- Erizaintzaren laguntza
- Gizarteratzea

Informa zaitez: www.meka-elgoibar.net - 943 74 80 19 - bulegoa@meka-elgoibar.eus

Jose Arteixe kalea 5
(Anbulatorio ondoan)
20730 Azpeitia

943 02 59 55

INNOVA
HORTZ KLINIKA

IZ

Ignacio Zuloaga Institutua

AB Arte Batxilergoa

Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra

ATE IREKIAK

maiatzaren 3an

18:00etan

Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net